

1994ko maiatzak 27


237. zenb.

PRESS

ARRASATE



**Argi ibili ala
Fosforos?**



Antzerkia

Amaia antzokian

Maiatzak 28, larunbata

Arratsaldeko 5etan

PREZIOA: 300 Pta.



Zaharren mundu berria

Zaharrez beteriko mundu berri paradigikoa errealitate bizia da eta urrutira joan barik, Dega Garaiairi begirada bat botatzen badiogu 1970ean %7ko zaharrenden tasa zuen, urte gutxian %13ra igo da eta 2000. urtean %18,5era iristea espero da. Igoera horren arrazoia bizitza batatzeste igo izana eta medikuntzaren zainketak dira. Baina horiek ez dute, berez, adin baten kalitatea garantizatzen, bizidunen berezko erosio naturalaren ondorioz gaitasunak galtzarekin gero eta arazo gehiago izaten da eta.

Progresio etengabea doazen kopuruen atzean, adinagatik eta osasun arazoengatik gero eta ikutuago dagoen herri baten arazo larriak daude. "Zahartzearen zahartze" fenomenua jasaten duen biztanlegoarenak atentzio-arazo handiak aurrikusten dira, 75 urtetik gorako emakumeen kasuan larriagoak, sarrera bajuak eta eguneroko lanak egiteko gero eta dependentsia handiagoa baitute.

Zer egin? horixe da gizarteari eta komunitatei azaltzen zaien dilema. Utzi eta ahal den moduan konpon dadila? Ala aurreratu eta zerbait egin? Horixe da gizarte-komunitate aurreratuen bidea. Eta Arrasatek, hainbat gauzatan aintzindari izan denak, ezin zituen euren bizitzako onena lanean utzi duten pertsonak ahaztuta utzi.

Gizarteak instintiboki gazteak zaintzen ditu, esperantza dira eta, eta lehenaldia direnak ahazteko joera izaten du, baina hain zuzen ere, gizarte jakintsuak bere eginbeharrek artean hartzen du bere nagusienganako arreta.

Aurrikuspen eta aktibitateko joerarekin Instituto Comunitario de la Tercera Edad (ICTE) sortu da. Gizarteko klase berri horri erantzun komunitarioa eman asmo dion antolakuntza-gunea da. Talde horrek baliabide ekonomiko ikaragarriak behar izango ditu eta baita maitasun ugari ere, anonimo bihurtzen eta bere zaharrak galduz doan gizarte honengan-

dik. Eurak izan dira historian jakinduriaren arrasto utzi dutenak, famili-gunearen egonkortasunari eutsi diotenak.


Ikerketa Gerontologikoetan espezializatzen ari da ICTE. (Deba Garaiairi buruz ikerketa interesgarri bat ere egin du). Hezitzaileentzako heziketa, aiton-amonen zaintzaileak, Egoitzetako dinamizazioa, enpresetatik jubilatzen direnei heldutasunaren espazioan sartzeko prestakuntza ematea eta gestio eta teknikan adituak diren jubilatuek errekuperatzea, garapenean dauden herrialdeei laguntzeko. Atzerriko erakundeekin harremanetan dago ICTE eta Hispanoamerikaroko programatan parte hartzen du, esperientziak eta ikerketak trukatu.

Grafikoki, Adinekoen Eskola Profesional Berria da ICTE, aldatzen ari den gizarte honi, helduen gizarteari, indarrean dauden bizi-kontzeptuetako asko erabaki behar dituztenei zerbitzu handi bat egitera datorrena.

Esperientziak dakigu aktibitatea gure arreta eta buru-ahalegina eskatzen duen zerbaitekin ordezkatzeko ez badugu, gure gaitasun intelektualari edo igeltsatutako besoari gertatzen zaiona gertatzen zaiola: atrofiatu egiten da. Egin dezagun borrokan horren kontra, izan ere, euren fakultateak lantzen dituzten pertsonen gaitasun intelektualaren hondamena geratu ezezik, emaitzak hobetu egiten dituzte eta.

ICTE kooperatiba bat da, Saiolanen barruan sortua, eta langile bazkideak, erabiltzaileak eta Oñati, Aretxabaleta eta Arrasateko udalak ditu bere baitan. Beste batzuk atzera egin dute. Ilusio eta etorkizuneko proiektua da, gestio pribatuaren bizitasuna erakundeen inplikazioarekin batera nahi da bertan, gizarteko arazo larri bati erantzuna eman nahirik. ICTEK bazkide gehiago espero du, pertsonekin eta herriekin eskuzabal izateko prest dagoen aditu gehiago.

JESUS LARRAÑAGA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Argutzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Karnele Perez, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liker Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrañaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Maria - Itxaro

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

• Eguneko menua

• Asteburuetan menu berezia

• Paregabeko karta



RUTH GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 08 15

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

• • • •

Maltzaga-Urbina eta IGP taldeak

Maiatzaren 20ko aldizkarian, aurreko asteazkenean egin zen mahainguruko nire interbentzioa horrela laburtzen duzue: "IGPetan peajeari ezetz borobila eman diogu eta bide berriaren alde azaldu gara."

Azalpen hori ez da, inolaz ere, IGPtako emaitzen eta nire hitzen erreferentzia zuzena eta gaiak duen garrantziagatik zuzenketa osoa behar du.

IGP-NIPetako emaitzen laburpena honako hau da:

1. Partaideen %42 bide zaharra konpondu eta bide berria egitearen alde dago.
2. %39k bide zaharra konpontzea nahikotzat jotzen du.
3. %15ak bide berria eskatzen du, zaharra dagoen-tan utzita.

4. Gehiengoak ezetza ematen dio bide berriari peaje bat ezartzeari eta baita Bilbao-Behovia autopistaren peajea 2.003 urtetik aurrera luzatzeari ere.

Beraz, %57 bide berriaren alde agertzen da, baina, bide zaharraren konpontzearen beharra ikusten dutenak %81 dira.

Ezin esan ba, IGP-NI-

Pak bide berriaren aurka agertu direla baina egitasmo garailea, bidea konpontzearena izan da. Nabarmenki.

Eta horretaz aparte, eredu zehatz bat aipatu dugu bide zaharra konpontzearen adibidetzat: Gatzaga eta Landako biztanleen batzordeak aurkeztutako proiektua.

IGP-NIP taldeen erizpenak baditu beste zenbait azalpen interesgarri eta testu osoa argitaratzera gonbidatzen zaituztet ARRASATE PRESSEKOEI, guztiontzat mesedegarri izango baita.

Milaesker.

AITOR ITURRIAGA.

IGP-NIPETAKO PARTAIDEA.

• • • •

Erdikokale edo artekale

Gauza jakina da Arrasateko kalea nagusiaren izena Artekale zena. Garibaik behin baino gehiagotan izendatzen du, etxe baten salmentagatik, testamenturen bat tarteko edo baita Endecha edo Eresietan, Milia Lasturkoren heriotza zela eta, honela diolarik:

Guipuc andra oc artu ditu gaxtoto

Iturrioc cale an andra Maria Balda co

Artecale an andra Osanda Gabiola co

Eribale a andra Milia Lastur co

Garibaik, ez dakigu zergatik baina euskazko Artekal "calle del medio" moduan itzuli zuen. Artekal "entre-calles" edo "en medio de calles" moduan ere itzuliko genuke.

Itzulpenekin jarraituz, hor ditugu euskaraz medietarte edo mendarte, uribitar-te, lagun arte eta ogibartete ere. Euskaraz, eta euskalki guztietan, gaztelarazko "entre" edo "en medio de" ren esanahia oso argia eta zehatza da: arte.

Arrasateko Erdiko Kalea itzuliz, badirudi mendeetan zehar izen aldaketak izan dituela, hasierako Artekaletik, "calle del Medio" etorri zen eta euskaldundu nahirik, jatorrizko izena ahazturik Erdikoa jarri zen.

Artekale izena behin eta berriz errepikatzen da inguruko herrietan ere eta horietako batzuetan oraindik ere gorde egiten da, hala nola Bergaran, Bilbon, Duran-gon, Gernikan, Otxandio, Ondarroa, Plentzia eta abar, guztira 23 herri.

Komenigarri litzateke Kultura Sailak edo dagokionak Erdikokale izena garbitzea eta, antzina zen bezala, Artekal berreskuratzea.

GOROSTIZA

Pentsatu duzu datozen hauteskundeetan botoa nori eman?



Jose Luis Martinez Fagorrekoko langilea (52 urte)

Dagoneko pentsatua daukat botoa nori eman. Hauteskunde kanpainak ez dit erabakia aldatzen.



Elisabet Liodio Langilea (33 urte)

Normalean beti alderdi berari ematen diot botoa. Kanpaina guztietan antzekoa esaten dute, beraz, ez dut iritzia aldatzen.



Aitor Naberan Aparejadorea (31 urte)

Beti alderdi berari ematen diot botua, beraz, badakit nori emango diodan orain ere.



Maite Arana Euskadiko Kutzako langilea (37 urte)

Lehen EERI ematen dion baina sozialistekin batu direnez eta botoa alderdi euskaldun bati eman nahi diodanez, oraingoa EAJri emango diot.



Patxi Agirrebeña Ikaslea (22 urte)

Bai, HBri emango diot, alternatiba abertzale on bakarra dela uste baitut.



Karmele Zubizarreta Euskadiko Kutzako langilea (31 urte)

Egia esan, oraindik ez dut horretan pentsatu. Kanpaina garaian erabakitzen ez badut, ez dut botorik emango.



Juankar Lema Gertu inprimategiko langilea (22 urte)

Oraindik ez dut erabaki. Gainera, beharbada ez dut botorik emango.



Rosa Mari Dominguez Administraria (48 urte)

Oraindik ez dut erabaki hori hartu, baina normalean beti alderdi berberari ematen diot botoa.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualetoia 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 27
 Egunez eta gauzez: Ruiz, Magdalena.

Larunbata 28
 Egunez eta gauzez: Morales, San Andres.

Igandea 29
 Egunez eta gauzez: Azkoaga, Ferrerías.

Astelehena 30
 Egunez eta gauzez: Español, Iturriotz.

Astearte 31
 Egunez eta gauzez: Corcuera, Musakola.

Asteazkena 1
 Egunez 22.00ak arte: Irizar, Erguin.
 Gauzez: Mozos, Pedro deunaren.

Osteguna 2
 Egunez 22.00ak arte: Camacho, Oxirono.
 Gauzez: Amezua, Sta. Marina.

27 OSTIRALA

ZINEA

"Alegre, man non tropo" 7etan eta 10etan.

AL ANDALUS

"Tambor y cascabel", antzezlan. Amaia antzokian, 10etan.

AFARIA

EAK antolatuta afaria alkate-txean. Bertan, EAren Gipuzkoako presidentea, Joxe Julian Irizar, Inaxio Oliveri eta Begoña Lasagabaster izango dira.

KANTU AFARIA

Kantu afaria Aretxabaletako Uraltalde elkartearen, 8.30etan. Afarian soinu joleak izango dira. Loramendi kultur taldeak antolatuta.

AFARI-JAIA

Afari-jaia Imuntzo eta Ritxar trikitarietara alaituta. Bergarako Udal Euskaltegiaren ondoko frontoian.

ANTZERKIA GAZTETXEAN

Ekekei antzerki taldeak, "hiltegia" antzezlan antzetzuko du. Arrasateko Gaztetxean, 10etan. Sarrera 300 pta.

28 LARUNBATA

ZINEA

"La edad de la inocencia", 5etan, 7etan eta 10etan.

LUDOTEKA IBILTARIA

Txatxilipurdi-AEDko Ludoteka ibiltaria San Andres auzoan, Kurtze Txiki plazan egongo da. Ludoteka, OHOkoko ikasleei zuzenduta dago. Ordu-tegia, goizeko 10.30etatik 1etara.

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

"Mamuak", haurrentzako ikuskizuna. Amaia antzokian 5etan. Sarrera: 300 pta.

2. BIZIKLETA IBILALDIA

Goizeko 10etan herriko plaza nagusitik, 2. bizikleta ibilaldia. Ibilbidea: Arrasate- Aramaio-Arrasate. Helmuga, Iturripen.

ASTE KULTURALA

Al Andalus taldeak antolatutako duen aste kulturalaren barruan, 10etatik 12.30etara futbito partiduak, 4etan lehen mailako kadeteentzat txirriindulari lasterketa, 8etan "Koro Rocieroren" emanaldia

KONTZERTUA GAZTETXEAN

"One Drop" talde reagee-a Arrasateko gaztetxean, 10etatik aurrera.

29 IGANDEA

ZINEA

"La edad de la inocencia" 5etan, 7etan eta 10etan.

KONTZERTUA

Piano, Biolin eta biolontxelo hirukotearen kontzertua. Amaia antzokian, 7.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

IBILALDIA BILBON

Euskeraren festa, Bilbon. Autobusak goizeko 9etan irtingo dira.

LIBURU AZOKA

Garibai kaleko liburu azokaren azken eguna. Ordu-tegia: 12etatik 2.30a arte eta 5.30etatik 10ak arte.

HAUR ZINEA

"Los caballeros de la mesa cuadrada y sus locos seguidores", Amaia antzokian, 5etan. Sarrera: 200 pta.

OMENALDIA

Demetrio Iriarte Mujikari omenaldia Oñatin. 9.30etan kalejira Oñatiko kaleetan zehar Eskualdeko txistulariekin. 10.30etan Foru Enparantzan, txistulari eta partaide guztien biltzea. 11etan Meza nagusia.

12.30etan Demetrio Iriarte Jauri Urrezko domina emateko ekitaldia. 1.30etan Lagunarteko bazkaria Soraluze ostatuan. 7.30etan txistularien alarde Nagusia Foru enparantzan.

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Bigarren mailako kadeteek neuruko dituzte indarrak Aretxabaletan. Arratsaldeko 4etan. Dorletako Ama txirriindulari eskolak antolatuta.



KONTZERTUA

Oxana Yablonska Pianoan, Eduard Wulfson Biolina jotzen eta Dimitri Yablonsky biolontxeloan kontzertua emango dute, Amaia antzokian 7.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

30 ASTELEHENA**ZINEA**

"La edad de la inocencia" 7etan eta 9.30etan.

**ATZERATUEN ASTEA**

Atzeratuen astea egingo da maiatzaren 31tik ekainaren 5a bitartera. Ekintza ugari izango ditugu eta ekintza desberdinen egitaraua erdiko kuadernotxoan daukazu.

**ESKORIATZA-ARRASATE KROSA**

Ekainaren 5ean, Eskoriatza-Arrasate krossa. Arrasate Atletiko taldeak antolatuta eta Arrasate Kirolak babestuta. Ibilbidea Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateetik igaroko da eta guztira 7.100 metro ditu. Irteera Eskoriatzako plazan 12.30etan izango da eta Arrasatera 12.50ak inguruan helduko dira. Izenematea 500 pta.

BIZIKLETA FESTA

Aurtengo Bizikleta Festa, ekainaren 11n izango da Donostiako Belodromoan. Bertan, Europa mailako txirrindulari onetsuenek hartuko dute parte. Kirola, ikuskizuna eta sariak nagusi izango dira.

31 ASTEARTEA**ZINEA**

"La edad de la inocencia" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

Gaia: "Ezkundu bako bikoteen Udal Erregistroak; Gazteizko Udalaren adibidea". Hizlariak: Nekane San Miguel, Tolosako auzitegiko epailea eta Pili Mendibil, Gipuzkoako lesbianen koordinakundeko partaidea. AEDko lokalean, Pablo Uranga kaleko 4ean arratsaldeko 7etan. AEDk antolatuta.

1 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

"Emakumea publizitatean gaur egun" 4etan, Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruan. Hizlariak: Amaia Gabilondo eta Arantzazu Loidi.

2 OSTEGUNA**MANIFESTAZIOA**

ESK, ELA, LAB, UGT eta CCO-Ok deituta. Arrasateko industria sarearen alde eta Zerrajera eta Transformadoseko lanpostuak mantentzearen alde. Arratsaldeko 7etan Portaloian.

DANTZARI EGUNA

Haur dantzarien eguna antolatu da ekainaren 19rako. Egun horretan Arrasatera haur asko etorriko da eta guztiek herriko familietan bazkalduko dute. Hau dela eta, haur horiek etxera gonbidatu nahi baldin badituzue, AEDn edo HIRE liburudendan eman dezakezue izena.

**ARGAZKIGINTZA IKASTAROA**

Argazkiak hobetzeko ikastaroa Eskoriatzan, astearte eta ostegunetan 6.30etatik 8etara. Maiatzaren 31n hasiko da eta 4 astez iraungo du. Jorratuko diren gaiak: erretratua, flasha, natura, mugimendua eta kirola, sormena argazkigintzan. Izenematea Eskoriatzako kultur etxean. Matrikula 1.000 pta, plaza kopuru mugatua.

HELDUEN TANBORRADA

Nagusien tanborradan izena emateko egunak: maiatzaren 30a, 31a eta ekainak 1a, arratsaldeko 7etatik 8etara Sudc-eko lokalean, (Pablo Uranga 4).

“Kooperatibistok badakigu bazkide garena eta ondorioz gure zereginaren onuradun zuzenak gara eta Kooperatiben etorkizunari eragiten dioten erabaki garrantzitsuak ditugu gure esku.

Irrifarrera, satisfazio pertsonalera bueltatuz, hori konpartitua ez denean, zati batean baino gertatzen ez denean, proiektu amankomun batean gehiago sakontzeko premia dugu; pertsonak eta erakundeek espero dutena hurbilago egon behar du, (...)

Denok egin behar dugu pertsonen beharrei erantzun-go dien proiektu bat egiteko ahalegin handiagoa eta denon arteko ahaleginari esker lortzen ditugun aurrerapenengatik poztu eta zoriontzeko gai izatea.

Pena merezi duen, aurrera egiten duen eta oraindik ere gaur egun hainbeste espektatiba sortzen duen zerbairetan partaide izateak merezi du irrifarre bat”.

Jesus M Herrastik

lanhida

“Gizarteak erantzun bat merezi du, baita demokraziak ere. Herritarrak erabat aspertuta daude hizkera bikoitzetaz, ustelkeriaz eta eguneroko arazoei erakundeek eskaintzen dieten konponbide eskasaz”.

Esther Larrañagak

Egunkaria

“Zorionez badirudi etorkizunean aukera zabalagoa izango dela, famili bizitza anitzago eta dibertsioagoa ezagutuko dugula. Hemen gero eta gehiago dira bakarrik bizitzea aukeratzen dutenak, lotura finko-egirik gabeko bikoteak, ama ezkongabeak, ezkonduak umerik gabeak, sexu bereko bikoteak, ume bakarreko edo gutxiko familiak, bananduak... Nahiago duzula arbasoen ohizko famili bizitza? Bejondeizula! Baina besterik nahi duenak ere izan beza bestela bizitzeko giroa!”

Iñaki Mendigurenek

Egunkaria

Zein da auzoetako gazte lokalen helburua, eta zeini zuzenduta egongo da?

Txoko edo lokal horien helburu garrantzitsuenak gazteek euren denbora librean antolatu dezaten toki bat edukitzea da. Gaztearen heldutasunerako garrantzitsua da euren espazio propioa izatea, era honetan, beste lagun batzuekin bildu eta harremanak sendotzeko aukera izango baitute. Gainera, espazio horiek gizartearen parte hartzea bultzatzen dute eta hainbat balore garrantzitsu bereganatzen laguntzen dute. Txatxilipurdin lan egiten dugunon ustez, guzti hori gartzeko aukera gutxi izan dute batez ere auzoetan bizi diren gazteek, horregatik, auzoetan antolatuko ditugu gazte lokalak.



Urri Urizar

Txatxilipurdi elkarteko dinamizatzailea

Hasiera batean bi auzotan zabalduko dira, San Andres eta Musakolan eta 14-17 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo dira. Baina gazte horiek urteak betetzen joango diren heinean, parte hartzeko adina zabalduz joango litzateke. Honek ez du esan nahi, beste auzo batzuetan ekintza puntualak egingo ez ditugunik. Noizbait iraunkortasuna eman asmoz, gainontzeko auzoetarako ere antolatuko ditugu ekintzak. Bestalde, lokal bakoitzean dinamizatzaile bana hasiko da lanean. Iraila bitartean, dinamizatzaile horiek proiektua garatuko dute eta udazkenean hasiko dira funtzionatzen. Proiektua lantzerakoan, berriz, euskararen erabilpena sustatzea, autoantolaketa bultzatzea eta gazteen proposamenak zeintzuk diren izango dira kontutan.

Bukatzeko, ordutegiaren berri eman nahi nuke: lokalak asteartetik ostiralera bitartean izango dira zabalik egunero hiru orduz eta larunbat arratsaldetan, beste lau orduz.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Iturri ongi etorria

Zapatuan ongi etorria egin zitzaion Iñaki Iturri preso ohi atxabaltarrari. Amnistiaren Aldeko Gestorek antolatuta, arratsaldeko 7etan kontzentrazioa egin zen Gatzagan eta ondoren kotxe karabanan Aretxabaletara hurbildu ziren. Han, lagun ugarik ongi etorria eta omenaldia egin zioten. Iturri, izatez arrasatearra da baina orain dela 16 urte Aretxabaletara ezkondu zen. Zigorraldiaren hiru laurdena bete ondoren utzi dute aske.



AHT-aren aurkako ekintzak

Ehun lagunetik gora bildu zen, domekan Aramaion egin ziren Abiadura Handiko Trenaren aurkako ekintzetan. Goizean mendi ibilaldi informatiboa izan zen, abiadura handiko trenaren nondik pasatuko litzatekeen eta eragingo lituzkeen kalte ekologikoen inguruko balorazioa egiteko. Arratsaldean, berriz, batzar informatiboa izan zen Aramaioko zineman. Bertan esan zuten, uste baino lehenago aurrez aurre izango dugu trenaren proiektua eta besteak beste, metropolien indartzea eta herriak alboratuta geratzea ekarriko du horrek. Horregatik, proiektuaren aurka mugitzen hasi beharra dagoela adierazi zuten.

kalitate onekoa izan zen eta publikoa pozik atera zen kontzertutik.

Jubilatuaren eguna

Milatik gora izan ziren zapatuan omendutako

jubilatuak. Jaia adierazteko, Arrasateko dultzaineroek alaitutako kalejira izan zen goizean eta ostean, meza San Juan elizan. Eguerdiko ordu bietan Musakolako kiroldegira hurbildu ziren lagunartean bazkaldu eta

dantzan egitera. Urtero bezala, Arrasaten bizi diren zaharrenei, Isidora Moreno 101 urtekoari eta Cándido Moralejari 94 urtekoari omenaldi berezia egin zitzaion.

Senitarteko IX. Topaketak

Asteburuan, Aita Menni Ospitalean Senitarteko IX. Topaketak egin ziren. Topaketen helburua, gaisoen eta senideen arteko harremanak sendotzea da. Ekintzei hasiera emateko bertako gaisoek eta herriko beste artista batzuk egingo dako artelanak jarri ziren ikusgai.

JAIOTZAK

- Jon Ander Kortabarria Saez. Maiatzaren 17an.
- Maider da Silva Rodriguez. 19an.
- Minerva de Cos Moreno. 19an.
- Josu Etxagibel Iria. 18an.
- Arrate Isasisasmendi Landaluze. 19an.

EZKONTZAK

- Esteban Uribesalgo Altuna & M^a Dolores Diaz Pascual. Maiatzaren 20an. Zibilez.
- Luis Miguel Barroso Hernandez & Margarita Uribarren Legarda. 21ean. Elizaz.

HILDAKOAK

- Manuela Guzman Ramirez. Maiatzaren 19an. 78 urte.

Asteburuko kultur ekintzak

Arteszenako dantza garaikideko taldearen emanaldia izan genuen zapatuan, Amaia antzokian. Taldeak bere lehen koreografia eskaini zuen, "Amets Beroak" izenekoa. Emanaldia kalitate onekoa izan zen eta dantzariak profesionaltasuna erakutsi zuten, baina jende gutxi hurbildu zen antzokira. Domekan, berriz, jende gehiago gerturatu zen Amaia antzokira Budapesteko Hungara orkestra sinfonikoaren kontzertua entzuteru. Ekitaldi hori ere

M
I
T
A
R
T
E



Nekazalturismoa

Etxeko berezitasunak & Euskal janariak & menua edo karta & Mendiko irteerak & Urkulum pasioak & eta gaua iristen denean... logelak!



Areantza auzoa. Tfnoa: 79 17 51


G
A
R
A
I

TOLDOS LETE, S.L.



**Eguzkiaren indarrari...
marka baten sendotasunak gogor egiten dio**

Kataide poligonoa. 14. Pabilioia (Musakola)
Tfnoa: 79 23 83 FAX: 77 04 45



JOSE LUIS ERAÑA *

Udako kirol programa

Aurten ere, urtero bezala, Udako Kirol Kanpaina antolatzeari ekin dio Aukeak. Bultzatzaile nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia da, berak aurrez ezarritako zenbait kirolen izena ematen duen lagun bakoitzarengatik dirulaguntza emanez. Kirol horiek Aldundiaren iritziz suzperthu behar liratekeenak dira, baina Udal bakoitzaren erantzukizunean uzten da kirolen aukeraketa.

Aldundiaren laguntza egitarau orokor bat bultzatzeko erabiltzen dugu Arrasaten, arrasatear guztien eskakizunetarako egokitzen ahaleginduz eta eskaintza zabala eginez, ekintza guztiak oso prezio bajaran jarri, aktibitateen informazio orrietan agertzen den bezala.

Kirol kanpaina honen zergatiak ugariak dira. Alde batetik uztailean Arrasaten geratzen diren bizilagun guztiak kirol eskaintza zabal eta

erakargarria proposatzea, kirol aktibitatearen onurak agerian jarri eta ondo pasa dezaten; urtean zehar egiteko aukera gutxi izaten diren kirolak egitea, hala nola rafting-a, kainioi jeitsiera, acuatic-a, hipika... eta urtean zehar Arrasateko kiroldegian egin daitezkeen kirolen erakusgarri eta gantxo izatea.

Hala ere, aurreko urte-tako maila gainditu egin nahi da aurten, eskaintza eta aktibitateen kalitatea ere handituz. Horregatik aurten 21 ekintza ezberdin antolatuko dira, adin eta interes ezberdineko pertsonentzat. Guztietan ondo prestatutako irakasleak egongo dira, Besaide eta Zikloturista taldeko partaideak, soin hezkuntzako lizentziatuak eta titulu eta esperientziadun monitoreak tarteko.

Aipatu beharreko da Arrasateko zenbait erakun-

dek ere egingo duela bere aportazioa kirolaren alde. Gazte Zerbitzuak hipika, parapente, rafting, hidro speed, kainoi jeitsiera eta kanoa kaiak ekintzetan parte hartzen duten gazte langabetu eta ikasleei dirulaguntzak emango dizkiete.

Emakumearen sailak ere Badminton, tenis, Tai-chi edo igeriketaren izena ematen duten 16 urtez gorako emakume langabetu eta ikasleei beharpenak egingo dizkie. Bi eskaintza hauen "akats" bakarra plaza mugatuak izatea da, eta dirulaguntzetan sartu nahi izanez gero bizkor ibili beharko duzue.

Aukeako bazkide guztiei beharpenak egingo zaizkie; zorte apur batekin kirol pila bat egin eta oso merke aterako zaizu. Gainera, parte hartzen duten guztiek kamiseta polit bana ere jasoko dute.

Bi txanda izango dituzu: ekainaren 27tik uztailearen 8ra eta uztailearen 11tik 22ra, kirol gehienentzat. Hilarbete osoko ekintzak uztailearen 4tik 22ra edo 29ra izango dira, gimnasia erritmikoa, mantenimendukoa, 3. adineko gimnasia eta acuatic-a. Izen ematea kiroldegian edo Gazte Zerbitzuan egin dezakezu.

Anima zaituz! Udan kirol berriak aukeran!

AUKEAKO KIROL ZUZENDARIA


USTEAK USTE

Duela gutxi prentsaren bidez enteratu gara Arrasaten "Adore" herri ekimenaren inguruan eta Arrasateko Askagintza eta Hies Ekimenak bultzaturik gazte talde bat osatu dela.

Ohituak gaude herri honetan hainbat eta hainbat arazoren aurrean indarrak bitzen, jakin dakigunez bakarka nahiko gutxi aurrera dezakegula. Beharbada horregatik, beste talde bat dagoela eta orria pasatu eta irakurtzen jarraitu dugu, ohartu gabe agian herri ekimen horren helburuek duten garrantziaz. Izan ere normaltzat jotzen hasi gara droga kontsumitzaileak zigortzea, eurak biktima zuzenak izanik. Bitartean, ia ez zaigu ezer falta onartzeko narkotrafikogintzan ari direnak, horiek uki ezinak direla, ezin izango dugula inoiz ezer egin erantzunkizun maila goraino heldu eta montaiia desegiteko. Adore herri ekimenak, alde batetik posible dela horiengana heltzea, izen eta abizenekin, adierazi nahi digu, eta momentuz desegite-raino heldu gabe ere, bai behintzat ikutzeko moduan. Aurrerapauso bat da, batez ere posibilitateari ateak zabaltzen dizkiolako, ezintasunak baztertzaz jarrera positiboa hartzea bultzatzen gaituelako. Baina Adore herri ekimenaren helburuen artean, aipatutakoa garrantzitsua izanik ere, hanka motz geratuko litzateke gizartearen drogenaren fenomenoaren inguruan debate bat zabaltzearekin batera joango ez balitz. Zer egin da orain arte, bai erakunde publikoetatik zein herri erakundeen aldetik, zer emaitz lortu da, orain arteko bide berbera jarraitu behar da edo aldaketa batzuk eman behar dira, zein arlotan: prebentzioan, legerian, tratamenduan...? Drogak beti izan dira, ez ditu gure gizarteak asmatu, baina zergatik ematen da orain kontsumo basati hau, menpekotasun gogor hau? Hemen dago gakoa. Ikasi beharko dugu drogekin bizitzen, baina drogak geure menpe izanik eta ez gu drogen menpe. Hau denon lana da, horregatik, ongi etorri hasi berri den Arrasateko Adore herri ekimenaren laguntza-taldeari.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldisper kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ARTE LENIZ
koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea, 4 ARRASATE
Tfnoa: 79 37 64

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

Arrasateko merkataritzaren egoera ezagutzeko ikerketa egin da



Arrasatearren % 55ak kanpoan erosten du.

Ibai Arte merkatarien elkarteak proposatuta, merkataritza sektoreko egoera aztertzeko ikerketa egin berri du LKS enpresak. Lan hori udalak finantzatu du eta 5 miloi inguru kostatu da. Ikerketa horretan, egungo egoeraren inguruko hainbat datu jasotzeaz gain, herriko merkataritza indarra hartzen joateko, aurrerantzean jarraitu beharreko pausuak zeintzuk diren zehazten da. Besteak beste argitasuna, garbitasuna zaindu behar direla eta merkatariek batera lan egin behar dutela zehazten da. Zerbitzu publikoen bidez Arrasate merkataritza arloan indartzea da asmoa. Horregatik, erosleak erakartzeko formulak aurkitzea garrantzitsu jotzen da lan horretan.

Hona hemen ikerketatik ateratako datu apagarrienak.

- 1991an egindako zenbaketaren arabera, 366 denda daude Arrasaten.

- Horiematik, %37,4 janari dendak dira, %20,5 erropa eta oinetako dendak eta %17,8 altzari eta etxeko gauzak saltzen dituztenak.

- Zer eta non erosten dugun:

- %40ak hamabostero edo hilero egiten ditu erosketak eta %23,7ak egunero.

- Eguneroko erosketak ohiko denda txikietan egiten dira, normalean auzoko dendatan. Goizez.

- Aste osorako erosketak, supermerkatu handietan. Ostiral eta larunbatetan, arratsalde eta goizez.

- Perfumeak, erropak, oinetakoak, kirolerako erropak eta opariak erdialdeko dendatan erosten dira. Batez ere larunbatetan.

- Arrasatearren %55ak herrikanpo ere egiten ditu erosketak.

- %35k hilean behin, %32k hiru hilabete behin, %30k urtean behin.

- %70ak beste toki batetara atsaldepa doan bitartean egiten ditu erosketak horiek eta %28a zuzenean erosteko helburuaz joaten da beste herri batzuetara.

- %83a Gasteiza joaten da, 15.000 pertsona gutxigora behera.

- Batez ere erropa eta oinetakoak erosten dira kanpoan.

- %72k Arrasaten nahikoa denda dagoela uste du.

- Erosketak kanpoan egiteak zer esan nahi duen.

- 2.000 milioitako galera urtean.

- Beste herri batzuetako jendea ere etorzen da Arrasatera erosketak egitera. 400 milioi uzten dute herrian. Batez ere, oinetako eta jantziak erosten dituzte.

- Beraz, batazbesteko galera, urtean 1.600 milioitakoa da.

Botoa non eman

Ferrialekuko eskola itxita dagoela eta, erdi aldean bizi direnak botua ematera nora joan behar diren ageri d jarraian. Gainontzekoak, ohizko tokietara hurbildu behar dira.

Udaletxeko Pleno

Aretoan: Arrasate Pasealekua, Erdiko Kalea, Ferrerrias, Gazteluondo, Herriko Plaza, Iturriotz, Jose Letona Enparantza, Kanpatorpea, Olarte Kantoia, Zeharkale Estalia, Zurgin Kantoian bizi direnek.

Monterron Jauregian:

Bizkaia Etorbidea, Villa Tranquilla, Barrenacho, Casa Mina, Ignacio Zuloaga, Marko-Alde Kalea, Olarte, Otalora Lizenziatua, Pablo Uranga, Zurgalde eta Meatzerrekako bizilagunek.

Amaia Antzokian:

Azoka, Biteri Etorbidea, Maalako Errabala, Mondragones Kalea, Okendo, Otalora Lizenziatua kalea, San Franzisko Kalea, Sebero Altube Plaza, Aldai, Aldaigain, Jose Luis Iñarra Abade Jauna Pasealekua eta Obenerrekako herriarrek.

Abaroa Jubilatuta

Etxean: Alfontso X. Jakintsua Plaza, Arrasate Pasealekua, Biteri Etorbidea, Garibai Etorbidea, Garro Generala, Gipuzkoako Etorbidea, Iokin Zaitegi, Iparragirre Plaza, Jose Maria Eguren Plaza, Kontzezino, Kontzezino Kale Estalia, Maala, Nafarroa Etorbidea, San Bixente Ferrer, Zaldibar, Zaldispe eta base-riak eta Zerkaosteta kale-takoek.

ESLU
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioak
Offseta

Ferrerrias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Elkarte sinatzaileetatik ordezkari ugari bildu zen trenbidea berreskuratzearen aldekoen ekitaldira.

Bidegorri proiektua aurkeztu du Diputazioak

Trenbidea oinezko eta txirrindularientzat berreskuratzearen aldeko taldeak amaiera ekitaldia egin zuen astelehenean, jendez betetako ekitaldi publikoaren bidez eta lanaren eta IGPetan lortutako emaitzaz oso balorazio positiboa egiteaz gain, "Triki-Traka" elkartearen sortzeko asmoa ere adierazi zen.

Erakundeen izenean etorritakoen artean, Emilio de Francisco Jaurlaritzakoak trenbidea berreskuratzearen proposamena "ahal den neurrian kontutan hartuko dela" adierazi zuen, baina IGPetako emaitzen gainetik, Debasaren barruan autopistaren inguruko erreflexioa egin beharaz mintzatu zen.

Diputazioko Ingurugiro saileko ordezkariak, erakunde horrek landu berri duen bidegorri sarearen berri eman zuen; proiektu

horren barruan dago bailara honetan zehar pasatuko dena. Ez zuen aditzera eman lanak egiteko eperik, ez eta ibilbidea nondik nora joango denik ere, ahal den lekuetan trenbide zaharraren bideari jarraituko zaiola baino. Bailarako alkateen interbentzioan lanari ekiteko ordua dela azpimarragarri: "ez polita delako, erabat beharrezko delako baizik" Xabier Zubizarretaren esanetan, behingoz adostu eta erronka hori aurrera eramatea da egin beharrekoa.

Eugenio Otxoak, Gatzagako alkateak, bidegorrien gainetik gatzagarrek barruko garraio bideekin urtetan duten arazoari konponbidea ematea eskatu zion Jaurlaritzari, IGPetako euren ponentzia gogora ekarri.

Umezaintzaren oharra

Matrikulazioa amaituta eta maila eta adin batzutan kopuruak beteta dauden arren, 94an jaiotako umeentzat oraindik lekua badela jakin arazi nahi du Umezaintza Haur Eskolak. Izen ematea hainbat lasterren egitea komeni da.

Ikastetxea berritzeko proiektua

San Andres Ikastetxea berritzeko proiektua ontzat eman zen asteleheneko gobernu batzordean. Lanak aurrera eramateko 48 milioitako aurrekontua ezarri da.

Udal irratia egoitza bila

Mahai gainean geratu zen, hau da, erabaki gabe, udal irratia behin-behineko egoitzaren izendapena. Gobernu batzordean, udal irratia orain ATB eta ARRASATE PRESS dauden toki berean jartzea proposatu zen. Irrati proiektua egiten ari direnek, berriz, merkeagoa dela eta Arrasate Pasealekuan jartzea proposatu zuten.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



Ekainaren 2an egingo da manifestazioa, arratsaldeko 7etan hasita.

Manifestazioa Transformados eta Cerrajera istearen aurka

Arrasateko Industria sarearen alde, datoren ostegunerako, ESK, ELA, LAB, UGT eta CC.OO sindikatuak, herritar guztiei zuzendutako manifestazioa deitu dute. Manifestazioa, arratsaldeko 7etan abiatuko da Portaloitik, honakoa eskatzeko: Transformados eta Cerrajera enpresak ez istea eta lanpostuak mantentzeko, patrimonioa ez saltzea eskatuko zaio UCEM Korporazioari. Korporazioaren plana, Cerrajeran 36 langile eta Transformadosen beste 52 soberan daudela eta, bi enpresa horiek dauden lurzorua saltzea da. Sindikatuak, berriz, patrimonioa saldu gabe produktu berriak eginez aurrera

irten daitekeela aldarrikatzen dute. Bitartean, udalak eskatuta, LKS enpresa bi enpresen egoeraren inguruko txostena prestatzen ari da eta laster ezagutuko da emaitza. Astelehenean emango duten prentsurrekoan, sindikatuak ekintza horri buruzko argibide gehiago eman eta bi enpresen egoeraren balantzea ere egingo dute.

Bestalde, aspalditik egiten ari diren bezala, ostegunean ere kontzentrazioa egin zuten langileek. Beti bezala, portaloian bildu ziren eta ondoren Zigarrolarainoko marxan abiatu ziren. Oraingoan gainera, langileen familiartekoez ere hartu zuten parte.

Jaietarako baimena

San Juan jaiak laster direla eta, urtero moduan Alkatetzak soldaduntza egiten ari direnak jaietarako etor daitezten, eskutitzak bidatzeko asmoa du. Horretarako gutuna zuzendu behar zaion nagusiaren izen abizenak eman beharko dira Udaletxeko bulegoetan, ekainaren 16a baino lehen.

Aiton-Amonei omenaldia

Herriko 80 urtetik gorako aitona-amona guztiei, omenaldia egingo die Udalak ekainaren 24an. Ekintza horretan parte hartzeko, izena eman behar da ekainaren 16a baino lehen udaletxeko bulegoetan.

Uharkapeko obrak

Astelehenean ireki ziren Uharkapeko horma bukatzeko lehiaketarako plikak. Guztira 10 enpresa aurkeztu dira lehiaketa horretara. Erabakia, berriz, hiru aste barru egingo den plenoan hartuko da. Orduan, enpresaren bati obra adjudikatuko zaio.



IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994 - 95 ikasturterako aurreinskripzio-epena zabalik dagoela

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994 - 1995 ikasturteari begira

✓ Haur Hezkuntza

✓ Atzerriko hizkuntza: Ingelesa

✓ Hezkuntza musikala

Informazioa


IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 71 41 57

ESKORIATZA



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea Tfnoa: 77 14 24




Angel Cristo, telebistako zirkoetan ikusten dugun domadore famatua Arrasaten izan da bere zirkoaz aste honetan. Trapezistak, mala-baristak, pailazoak, tigreak, lehoiak eta elefanteak.. denetik ikusteko aukera egon zen zirkoko pistetan.



San Viator ikastetxeak datorren urtetik aurrera argazkian ikusten dugun logotipoa erabiliko du. Diseinua **Xabier Ezkurra** arrasatearrak egin du eta batez ere kolore horia nagusitzen da logotipoan.

Zarugalde kalean, zulo haundi bat dago eta bizilagunek udaletxean kexa jarri badute ere, oraindik hortxe jarraitzen du. Zuloa oso arriskutsua izan daiteke, batez ere gauean ondo ikusten ez delako. Beraz, zerbait gertatu baino lehen konpontzea komeniko litzateke.



ETBko "22ra" lehiaketan irabazitako kopurua HIESaren aurkako taldeentzat ematea erabaki zuten Anne Igarteburu eta Niko Etxartek. Arrasateko HIES- Ekimenari 97.400 pta egokitu zaizkio. Eskerrik beroenak Anne eta Nikori. Oso ondo etorriko dira!

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Gabriel Elkorobarrutia eta **Maria Zabalok** urrezko eztaiak bete dituzte. Gabriel Arrasateko Uribarri Mendi-Azpi auzoko baserrian jaio zen 1904ko martxoaren 18an. Maria, 1914ko uztailaren 18an Ezkioko Oxinalde baserrian.

Ezkundu, berriz, 1944ko maiatzaren 13an ezkundu ziren eta sei seme-alaba izan dituzte. Gaur egun Gabrielak 90 urte ditu eta Mariak 80; urrezko eztaiak ospatzeko Ezkion familia guztiak bazkaria izan zuen. Zorion beroak bioi!

Arrasateko 8 eta 9 urte bitarteko 11 neska-mutikok Jaunartze eguna izan zuten domekan. Egun handia zalantzarik gabe. Dena dela, maiatzaren 8an eta 15ean ere beste hainbat neska-mutiko pasa ziren San Andreseko elizatik Lehen Jaunartzea egiteko.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

ARRANDEGIA


Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54





ARRASATE
KIROLAK

LEHIAKETA

"Nor izango da Zaldibarko txapelketaren irabazlea?"

SARIAK:

- Euskadiko selekzioko kamiseta.
- Euskadiko txirrindularien fundazioko kamiseta.
- Mundialeko baloia errealeko jokalaririk guztiek sinatuta.



EPEA: Larunbat eguerdian.

ERANTZUNAK: Arrasate Kirolak,
Ekaitz, Kajoi, A.T.B.

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Unai

Argi Ibili eta Fosforos finalean

Zaldibarko txapelketako finala iritsi zaigu azkenean. Argi Ibili eta Fosforos izango ditugu bertan nor baino nor, baina honaino heltzeko makina bat izerdi bota behar izan dute; bestela finalerdietan gertatutakoari errepaso bat ematea besterik ez dago. Finalera heldu diren talde biak penaltiei esker daude hor goian. Izan ere, finalerdietako bi neurketetan ber-

dinketa izan zen nagusi eta ondorioz, finalera zeintzuk pasatu behar ziren jakin ahal izateko, penaltietara jo behar izan zuten. Gauzak horrela, datorren zapatuan 5etan, hilabete luze hauetan itxaroten egon garen finala ikusteko aukera izango dugu, hau da, Fosforos eta Argi Ibili, txapelketako talde onenak ikusteko aukera.

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETA**

EMAITZAK ZALDIBAR

Argi ibili 4 - Irati STS 4
Fosforos 1 - Trikiti 1

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

No comment 4 - Elisabeth 3
Trotabares 1 - Lo + X 7
Ola tailerrak 5 - Kabiru 9
Corinto taberna 6 - Borrock'n roll 0
Semen up 4 - Altza porru 5

B TALDEA

Yomai 5 - Bayer de Lenitz 3
Bodisca 1 - Nuevo taberna 0
Atxanta ke te merece 0 - Ke oxtias! 1
Berango sukaldeak 2 - Sorgol 3
Solano 7 mares 7 - Lokis 4

D TALDEA

Los insociables 0 - Stocker's 2
Equis 6 Mobiliario Arenaza 3
Estrella floja 1 - Belo eta Txapi 6
Latherbrunnen 1 - Ezkinako hontzak 0
Etxe mobiliario 0 - Hirei 1

E TALDEA

Borrock'n roll promes. 3 - Txeyenex 12
Los dimy 4 - Excavaciones Lete 4
Fanci boys 5 - Beti gazte 4
Jo ta akabau 1 - Los garinbas 4
Kirten tropel 7 - Auf dem koffer 4

ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 28

Zaldibar - FINALA
17.00 Argi ibili - Fosforos

URIBE AUZOA

Larunbata 28

Iturripe A

09.00 Ganbelas - Nuevo taberna
10.00 Top hits - Mob. Arenaza
11.00 Ola tailerrak - Borrock'n roll
12.00 Los Dalton - Excavac. Lete
13.00 Corinto taberna - Semen up

Iturripe B

09.00 Lore gazteak - Lo + X
10.00 Berango sukaldeak - Solano 7 mares
11.00 Stocker's - Hirei
12.00 Bayer de Lenitz - Lokis
13.00 Txeyenex - Auf dem Koffer

Igandea 29

Iturripe A

10.00 Jo ta akabau - Kirten tropel
11.00 Bodisca - Ke oxtias!
12.00 Trotabares - Kabiru

Iturripe B

10.00 Los dimy - Beti gazte
11.00 Equis - Belo eta Txapi
12.00 Elisabeth - Altza porru

BELARRIRA

◆ **Sarien ordua.** Txapel-dun eta txapel-dun ordeaz gain, 3. eta 4. postuetan sailkatzen direnak ere izango dituzte sariak. Lehen fasean, azken tokietan geratu ziren 4 taldeentzat urdaiazpikoa egongo da, 7 jokalaria nabar-menak saria jasoko dute eta finaleko jokalaria onenak ere bai. Gainera bi plaka omenaldi moduan emango zaie Eugenio Murillo eta Txikiren familiakoei. Eugenio eta Txiki Zaldibarko jokalaria izan ziren, baina tamalez biek agur esan ziguten.

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea

Lo+ X	15
Corinto taberna	14
Borrock'n roll	11
Semen Up	11
Ola tailerrak	11
Altza porru	10
Kabiru	9
Lore gazteak	6
Trotabares	6
Elisabeth	5
No comment	2

B taldea

Nuevo taberna	14
Bodisca	13
Solano 7 mares	12
Ganbelas	11
Sorgol	11
Yomai	10
Berango sukal.	10
Ke Oxtias!	9
Lokis	4
Bayer de Lenitz	4
Atxanta ke te ...	2

D taldea

Equis	16
Stocker's	15
Hirei	14
Belo eta Txapi	14
Latherbrunnen	11
Estrella floja	8
Mob. Arenaza	7
Top hits	7
Ezkinako hontzak	4
Los insociables	3
Etxe mobil.	1

E taldea

Los Dimy	17
Txeyenex	13
Jo ta akabau	13
Excav. Lete	11
Fancy bois	11
Beti gazte	10
Kirten tropel	10
Los Dalton	9
Auf dem koffer	4
Los garinbas	2
Borrock'n prom.	0

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK

77 08 15



ARGÍ PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERAI



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

TfNOA: 79 19 21



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria

Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5º-A

Tfnoa: 43 04 14

Fax: 43 11 01

20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea

Tfnoa-Fax: 77 13 09

20.500 ARRASATE



**Ongi-etorri
atzeratuen astera!**



□ **Orain** dela urte batzuk, lagun talde bat elkartzen hasi, eta Arrasaten ere atzeratuen aldeko ekitaldiren bat burutu beharra zegoela erabaki genuen.

Patxadaz ekin genion lanari. Lan horren ondorioz, eta SUDC elkartearen laguntzari esker, urtean behin Atzeratuen Eguna ospatzen hasi ginen Arrasaten. Ekitaldi apala izaten zen, baina era berean baita hunkigarria ere: eguerdi parteko kalejira, lagunarteko bazkaria, bazkalosteko jolas eta dantzak... eta batez ere neska-mutiko maitagarri hauen irriparre eta barre-algarak! Ez ginen lotan geratu, ordea. Eta jaiegun hura baloratzerakoan, aurrerapausuak eman beharra zegoela somatu genuen: bestela, Atzeratuen Eguna jai *itxi* bihurtzeko arriskua zegoen, herriko 30 neska-mutiko inguru *euren* festa egiten, bakarka...

Ez genuen halakorik nahi, ezta inundik ere!

□ **Bidean** aurrera egin behar, beraz, eta iazko urtea garrantzitsua izan zela uste dugu.

Batetik, Batzorde Antolatzailean lagun berriak sartu zirelako, taldeari sendotasuna emanez.

Eta bestetik, gure ateak ireki genituelako, atzeratuen aldeko ekitaldietan herriari eta herritarrei txanda eman asmoz.

Zentzu horretan, iazko maiatzean Arrasate Telebistan borobildutako saioarekin bete-betean asmatu genuela pentsatzen dugu: Arrasateko etxe guztietara iritsi ginelako, mondrauetarrei mundu honi buruzko beste ikuspuntu bat emanez, ikuspuntu baikorra, maitasunaren ikuspuntua, alegia.

Giro espeziala sortu zen; eta agian horrexegatik, Atzeratuen Egunean inoiz baino hobeto pasa genuen: festa itzela, alaitasuna nagusi... Eta gure neska-mutikoak lagun berriz inguratuta!

□ **Halaxe** iritsi gara 1994ra, batez ere animoso. Zorionez ez gaude bakarrik, alderantziz, geroz eta lagun gehiago aurkitu dugu bidean. Gaur egun, Atzeratuen Aldeko Batzordean Arrasateko hainbat talde, Erakunde eta Elkarte esanguratsu daude ordezkaturata.

Indarrak batu ditugu, beraz, eta urrats berri garrantzitsua eman: aurten, Atzeratuen Eguna ospatzeaz gain, lehenengo aldiz Atzeratuen Astea ere antolatuko dugu.

Besteak beste, mondrauetarra, honako ekitaldi hauek izango dituzu aukeran: bideo-emanaldia, hitzaldia, zinea, musika-jaialdia eta antzerkia. Egitaraua zure gustokoa izan dadila!

Horren truke, ezer gutxi eskatzen dizugu: zertxobait ezberdinak diren gure neska-mutiko hauenganako errespetua, eta maitasun apur bat. Besterik ez!

✓ **Atzeratu** bat ikusten dugunean, normalean zer egin ez dakigula geratzen gara, beharbada mundu ezezaguna eta ulergaitza iruditzen zaigulako. Hurrengoan, hauekako neska-mutikoren bat ikusten duzunean, mondrauetarra, eskainiozu irriparre bat, galdetu nola duen izena eta zer moduz dabilen. Esaten dutena ulertzea kosta egiten bazaizu ere, berehala ohartuko zara ze jatorrak diren, ze goxuak, maliziarik bapez!



✓ **Neska-mutiko** atzeratuak ezagutzen dituen edonork esango dizu fenomeno batzuk direla. Izugarri alaiak, eta hori bai, edozein momentutan bi muxu bero emateko prest! Zorionez bidean aurrera goaz, gainera. Eta nahiz eta oraindik lan dexente geratzen zaigun, gutxienez atzean utzi ditugu etxeko bazter baten izkutatuta bizi zireneko garaiak! Egin dezagun topa, beraz, inolako lotsa barik euren alde jardun duten guztiekin: osasuna, lagunok!

✓ **Baikor** jarraitzen dugu, bai, Arrasaten bertan badagoelako optimismorako arrazoirik. Hortxe daukagu orain urte batzuk zabalduko GUREAK tailerra, inguruko herrietako hainbat eta hainbat gazte gutxituentzako bizitzaren justifikazio bihurtu dena. Xinistu gehienak sekulako gogoaz joaten direla lanera. Lan horri esker, gizarte honetan tokitxo bat daukatela jakin dutelako.

✓ **Ez pentsa**, burugogorak ere badira, gero! Honekin edo harekin fijazioa sartzan zaienean, akabo! Mimoxoak, beti ere lagunarteko giroan protagonista izatea gustatzen zaie: eta batari besteari baino jaramon gehiago egin ezkeru, agur t'erd! Musikazaleak, beti dantza egiteko prest, jatun bikainak... Ume haundikote eta maitagarriak!

✓ **Gainontzeko** pertsonekin gertatu bezala, gure laguntxo hauentzako aisialdia izugarri garrantzitsua da. Arlo honetan, Bergaran badago elkarte bat, TXOLARTE; asteburu eta oporraldietan hainbat irteera eta aktibitate prestatzen dituzte. Horrez gain, ATZEGIk atzeratuentzako kirol-proiektu bat landu nahi du Arrasaten irailetik aurrera. Ahalegin izugarri garrantzitsuak benetako integrazioarako bidean!

✓ **Ingurukoekin** komunikatzerako orduan neurri batean nahiz bestean izaten dituzten arazoak medio, atzeratuen munduan oraindik ere zalantza berarekin jarraitzen dugu: ze puntutaraino diren kapazak eta ze puntutaraino ez, noraino heltzen ote den euren gaitasuna... Eurekin bizi izanda ere, beti ailegatzen da egun berri bat: eta egun horretan harrituta uzten gaituzte, bapatean guk uste baino dexente harutzago iristen direlako. Non ote daude euren mugak?





Kaixo, Mondrauetarra:

Ilusio handiz prestatu dugu eskuartean daukazun programa hau, ekitaldi guztiak atzeratuen alde izango direlako. Neska-mutiko horiek hau dena eta askoz gehiago ere merezi dute!

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu herriko talde, erakunde eta elkarte hauei, egitaraua eurei esker izango delako posible:

Arrasateko Udala, SUDC elkarte, Arrasate Musikal, Goikobalu, Txirta taldea, Trikitixa Eskola, ARKO, AED, EPPko Tuna, Karkabal elkarte, Eguzkigraf, Euskadiko Kutxa, Gaiteroak eta Bost-Up Blues Taldea .

Eskerrik beroenak modu bestean nahiz bestean euren lanarekin ekitaldi hauek primeran gauzatzen lagunduko duten guztiei ere.

Eta ongi-etorrikerik beroena zuri, arrasatearra. Egitaraua arrakastatsu bihurtuko dugulako elkarrekin. Eta bakarrik elkarrekin lan eginez lortuko dugulako helbururik ederrena: merezi duten maitasunaz inguratuta, atzeratuak gure gizarte honetan bene-benetan integratzea! Eskerrikasko.

Atzeratuen Aldeko Batzordea



**MAIATZAK 31
ASTEARTEA**

7etan. Monterronen
Bideo-emanaldia:
“Niños como estos”

**EKAINAK 1
ASTEAZKENA**

7etan. Monterronen.
Hitzaldia:
“Integración y educación especial dentro de la reforma educativa”

**EKAINAK 2
OSTEGUNA**

9.30etan. Amaian.
Zinea:
“De ratones y de hombres”

**EKAINAK 3
OSTIRALA**

10etan. Amaian.
Musika gaua:
Arrasate Musikal eta Goikobalu

**EKAINAK 4
LARUNBATA**

10.30etan. Amaian.
Antzerkia:
‘txirta’ taldearen aurkezpen ofiziala

**EKAINAK 5
IGANDEA
ATZERATUEN EGUNA**

12.30etan:
2.30etan:
5etan:
6.30etan:

*Kalejira trikitilariekin
Bazkaria Karkabalen
Jaialdia Monterronen
‘Blues’ emanaldia*

- Txapelketa hasi zenean, espero zenuten honaino heltzarrik?

- Bai, nahiko talde majoa osatzen dugu eta txapelketa txukuna egiteko asmoaz hasi ginen; gainera, nolabait aurreko urtean egin zigutenaz mendeku hartu gura genuen.

- Entrenamendu berezirik egiten duzue?

- Elkartu eta gure artean partidu batzuk jokatzeko ditugu.

- Zelan ikusten duzu finala?

- Oso parekatua eta guk ere argi ibili beharko dugu. Beste taldekoak beteranoak dira zaldibarren, eta irabaztea nahiko dute. Hala ere, Fosforosekoak han egongo gara, ahal bada nahi hori bertan behera uzteko.

- Txapelketari buruzko balorazioa?

- Ondo egon da, nahiz eta gauza batzuk hobetu daitezkeen, adibidez arauak guztientzako berdinak izan behar lukete eta ez batzuri kalte egin besteen mesederako.

- Finala irabazten baduzue?

- Juerga egingo dugu eta jende askori muturretan emango diogu; gudan inolako konfidantzarik izan ez dutenei, jakina.



Juan Mellado

Fosforos taldeko jokalaria

- Txapelketa hasi zenean, espero zenuten honaino heltzarrik?

- Hasieran gure helburua jolas egitea zen eta gero ondo gabiltzala ikusi genuenean finala, gero eta gertuago ikusten hasi ginen. Hala ere, hasieran ez genuen garbi noraino heltzeko gauza izango ginen.

- Entrenamendu berezirik egiten duzue?

- Ez, ez dugu entrenamendu berezirik egin, enteratu gara Fosforosekoak zeozertan badabiltzala baina guk ez dugu ezer ere egin.

- Zelan ikusten duzu finala?

- Oso polita izango dela uste dut, oso lehiatsua gainera. Beraz, bi taldeak ondo jokatzeko ahalegindu behar dugu.

- Txapelketari buruzko balorazioa?

- Jende asko ibili da txapelketan, eta hori oso inportantea da. Horrela bada, falta den gauza bakarra laguntza dela uste dut, udalaren laguntza. Bestalde, antolatzaileak egin duten lanagatik zoriontzeko gustatuko litzaidake.


- Finala irabazten baduzue?

- Afaria egingo dugu eta kriston juerga.



Iñaki Mendizabal

Argi Ibili taldeko jokalaria



Igor Altuna

Antolatzailea

- Zenbat urte daramatzazue Zaldibarko txapelketa prestatzen?

Gu duela 4 urte hasi ginen. Dena dela, txapelketa 30 urte dela jarri zen martxan, tartean urte batzutan geldik egon den arren.

- Txapelketa antolatzeko orduan, zer da gatxena?

Gatxena astero neurketak zaintzea da. Lehen fasean, zaindu beharreko 40 partidu daude,

goizko 9etatik 8etara egon behar dugu bertan partiduak zainduz eta emaitzak jasotzen.

- Nolakoa izaten da taldeen erantzuna?

Ona, 80 talde daude baina ez dute arazorik ematen.

- Zeintzuk dira zuen laguntzaile edo babesleak?

Inskripzioan 10.000 pta izaten da, gainera Arrasate Kirolak, Kajoi Taberna eta JMAK trofeoak ordaintzen dituzte. Hauek dira

gure laguntzaileak.

- Zer aurrekontu daukazu?

Guk urtero miloi bat ateratzen dugu eta hori da gastatzen duguna, azkenean parra gertatzen gara.

- Zelan ospatzen duzue txapelketaren bukaera?

Normalean, antolatzaileok, finaleko talde biek eta epaileek elkartu eta afari bat egiten izaten dugu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Argi Ibili 4 Irati S.T.S 4

Argi Ibilik eta Iratik sekulako norgehiagoka jokatu zuten zapatuan. Partidua hasi eta berehala Argi Ibili jarri zitzaigun aurretik baina Iratik ez zuen amore eman eta berdinketa lortu zuen. Ondorengo minutuetan talde bien lehia txalotzeko modukoa izan zen. Horrela, bukatzeko 3 minutu besterik falta ez zirenean, 4 eta 2ko abantailaz genuen Argi Ibili. Baina Irati azken minutuetan hustu egin zen kantxan eta jokalariek zuten guztia emanaz, lauko berdinketa lortu zuten. Argi Ibili taldetik Fede, Bunder, Txema eta Terik sartu zituzten golak. Irati taldeko golegileak Asier, Unai, Aitzol eta Kepa izan genituen. Berdinketa nagusi eta penaltietara jo behar, nahi eta nahi ez. Penaltien txandan Argi Ibilik 4 gol sartu zituen eta Iratik 3. Talde biek irabaztea merezi zuten arren, batek bakarrik du aukera.



Trikiti 1 Fosforos 1

Neurketa honetan ere berdinketa izan zen azken emaitza, lehen zatian ez genuen golik ikusi, baina bigarreanean partiduko gol biak etorri zitzaizkigun. Trikitiren gola Juan Luisek sartu zuen eta Fosforosena Juanitok. Banako berdinketa, baina berdinketa, beraz, hemen ere penaltietara jo behar. Penaltiak bizi-biziak izan ziren eta 4. txandararte itxaron behar izan genuen finala jokatu behar zuen taldea nor izango zen jakiteko. Trikiti txanda honetan jokalaria gabe geratu zen denek penaltiak jaurtita zituztelako; falta zen bakarra Jose Mari atezaina: jaurti eta kanpora. Fosfososen txanda, Menoti atezainak jaurti eta baloia barrura. Azkenean, Fosforos nagusi.



ITURRIOTZ
taberna
Girorik
jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04



ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

● Julie, Vincent, Thomas eta Patrick "Zabor kontratuak" atzera Frantzian

Frantziako «UNEF» ikasleen sindikatuko lau kide izan genituen bisitan Arrasaten, Frantziako ikasleen azken mobilizazioen nondik norakoak kontatzera etorri ziren Julie, Vincent, Thomas eta Patrick gazte unibertsitariak, Langile Komisioek eta ZUTIKek gonbidatuta. Frantziako ikasleen mobilizazioek CIP izeneko kontratu mota (hemengo zabor-kontratuaren oso antzekoa) atzera botatzea lortu zuten.

– Zergatik egin du Frantzian zabor kontratuak atzera eta Espainian ez?

– Espainian greba orokor bat egin zen urtarrilean, lan merkatuaren antzeko erreforma baten kontra. Frantzian ez da greba orokor bat egiterik lortu, langileek ez dute ikasleekin bat egin, baina mobilizazioak ez dira egun bakarerra mugatu. Frantzian gazte-riaren mobilizazioak hilabetez luzatu dira.

Mobilizazio gogorrak izan dira, enfrontamendu ugari izan da poliziarekin. Baina ez da hori bakarrik. Ikasturte hasieratik gizarte borroka ugari izan da Frantzian: Air France, Greba legea, Eskola pribatuaren aurka,... eta mu-

gimendu sozial bakoitzaren aurrean atzera egin du Gobernuak. Beraz, gure arrakasta hau ere kontestuan ikusi beharko genuke.

– Gainera, Gobernua beldur zen ikasleek eta langileek bat egingo ote zuten. Azken mobilizazioak 68koekin gonparatu dituzte egunkariek. Langileek ikasleekin bat egin eta grebara jotzen bazuten, ordukoaren antzerakoa izan zitekeen krisi sozial baten beldurra aipatzen zen. Gobernuak atzera egiteko arrazoi garrantzitsua izan da, hori ere.

– Zein da ikasleen sindikatu baten garrantzia?

– Sindikatuak eta ikasleen koordinazioa desberdindu egin behar dira, baina biak dira beharrezkoak. Sindikatuak tresna bat dira, bitarteko bat. Legeak eta administrazioaren mekanismoak ezagutzen dituzte eta azpiegitura bat daukate (finantziabideak, militanteak,...). Beraz, lege eta instituzioen bestelako erabakien berri jaso bezain laster, ikasleen artean eta egunkarrietan zabaltzen has daitezke. Gainera, sindikatuek mobilizazioetarako esperientzia aporta dezakete, kasu bakoitzean zer eta nola egin esan dezakete. Hau da, sindikatuak bultzatzaileak dira, detonagailuak.



Gero, ikasleen koordinazioa beste gauza bat da, auto-organizatua, eta sindikatuak, ikasle diren neurrian, besteak bezala integratzen dira koordinazio orokorrean.

Horrez gain, esan behar da oso ikasle gutxi dagoela gaur egun sindikatuta.

– Ez da hau izan Frantziako ikasleen lehen mobilizazio arrakastatsua.

– Ez, mobilizazio ugari izan da azken urteotan. Baina oraingoak garrantzi berezia dauka. Orainarteko mobilizazioak arazo akademiko edo tasengatik izan dira, baina aurtun lehenbiziko aldiz, ikasleak etorkizun laboralaren inguruko arazo bati aurre egitera aterata dira kalera. Eta hori prezedente inportantea da. Langabeziaren beldur handia dago.

– Zeintzuk ziren zehatz CIP kontratuen alde txarrak?

– Batetik, kontratu mota honek inongo konpromezurik gabeko behin behineko kontratua bultzatzen du, gazteei gutxienezko soldataren %35etik %80ra ordainduz, adinaren eta ikasketen arabera. Baina honen atzetik zer dagoen ikusi behar da. Kontratu mota hau ez da neurri berria. Izen ezberdinez beste antzeko saiakera ugari egon izan da. Soldatak jeisteko joera nagusitzen ari da Frantzian azken 10 urteotan. Enpresariak gazteak kontratatzea bultzatu nahi da, baina kontratazio horien kostea soldataren kontura jeitsiz eta enpresariaren konpromezuak gutxiagotuz.

Kontuan izan behar da, gainera, gazteen artean langabezia oso altua dela Frantzian, %23 edo %24koa, eta azken urteotan izugarri ari dela hazten. Gainera, lana aurkitzen duten gazteen lautik hiruri gutxieneko soldataren azpitik ordaintzen zaio.

● **"Gazteen artean langabezia oso altua da Frantzian eta azken urteotan izugarri ari da hazten."**



Gurean ere bada zer bisitatu, beraz, toki horiek non dauden seinalatu egin behar da.

Turismoari heltzeko ordua

Maria Agirre

Arrasatek turismoa erakartzen duen arren, sektore horri kasu gutxi egiten zaio. Gainera, turismo gehiago jasotzeko aukerak baditu eta hala ere, oraindik ezer gutxi egin da hori bultzatzeko. Lo dagoen sektoreari, esnatzeko ordua heldu zaio.

Turismoa hitza aipatzean, eguraldi ona, hondartza... eta horrelako kontzeptuak burura etortzen zaizkigun arren, turismo mota desberdinak daudela esan behar da. Horietako bat da turismo industriala, Arrasatek jasotzen duen turismo era. Denok dakigun bezala, kooperatiba mugimenduak bisitari asko erakartzen du, jende asko etortzen da hemengo enpresak ezagutzera. Baina Arrasate gai izan ote daiteke beste turismo mota bat jasotzeko?

TURISMOA ERAKARTZEKO IKERKETA

Galdera horri erantzuteko eta bide batez turismo industrialaren beharrak Arrasaten betetzen ote ziren ikertzeko, Deba Garaiko Mankomunitateak turismoari buruzko ikerketa sakona egitea pentsatu zuen. Lan hori Lurdes Romanok, Oñatiko turismo bulegoko arduradunak egin berri du.

Ikerketa bukatu ondoren, Lurdesek garbi ikusten du: "Nik garbi daukat, Arrasate eta inguruko herriek turismoa erakar dezakete baina jakina, horretarako hainbat gauza egin behar da". Aldaketak egin eta bisitariak jasotzeko eskaintza erakargarriak presatatu. Hori da hain zuzen Oñatin egin dutena, herrian eta inguruan bisita daitezkeen gauzekin ibilaldiak osatu eta promozionatu. Egin eta lortu, Oñatin, Turlan izeneko turis-

mo agentzia sortu zuten bost neskak eta negozioa bide onean doa. Baina Lourdesek garbi utzi nahi du turismoaren sektorea indartzea ez dela kritikik iriteteko giltza: "lanpostuak sor daitezke, baina ez da izango krisiaz bukatzeko formula".

ZER EGIN BEHAR DA?

"Lehenengo, garbiketa sakona". Lurdesen esanetan, zerbait erakutsi nahi badugu, hori txukundu egin behar da: "Deba erreka garbitu egin behar da, zikin dago eta itxura txarra ematen du. Garbitasun irudia ematea garrantzitsua da. Adibidez, pantaila ekologikoak erabil daitezke ezkinetan dauden txabola eta fabrikak estaltzeko. Herri barruan ere badago zeregina, aparkalekuen eskasia konpontzeko neurriak hartu, kaleen garbitasuna eta argitasuna gehiago zaindu eta alde zaharreko eraikinen zaharberritzeaz jarraitu. Nik neuk Arra-

A
rrasate eta inguruko herriek erakar dezakete turismoa, baina horretarako hainbat gauza egin behar da.

sateko plazan ere egingo nuke zeezer. Duen funtzioa ez duela betetzen iruditzen zait, beharbada kiosko bat eraikiko balitz, indarra hartuko luke”.

ZER ERAKUTSIRIK BADAGO?

Kanpora joaten garenean, bide ezkinetan egoten diren seinaleen bidez jakiten dugu toki bakoitzean zein gauza bisita daitekeen. Hemen, berriz, ez dago horrelakorik. Lurdesen ustez, horrek erakusten du turismoaz gutxi arduratu garela: “hemen ere eliza, auzo, parke eta beste hainbat toki interesgarri badaude, horregatik, seinalizatu egin behar da toki horiek non dauden. Herritik pasatzen direnei zuzendua egongo litzateke hori batez ere.

Baina eskolako turismoa ere erakar daiteke. Lurdes Romanoren ustez, museo industrialaren proiektua interesgarria da turismo mota hori jasotzeko: “eskoletatik haur asko hurbilduko litzateke eta turismo industrialarentzat ere osagarria izango litzateke. Jakina, gainontzeko bisitariak ere jasoko lituzke. Honen inguruan, Garagartzan, ingurugiro urbanoa aztertzerazuzenduta egongo litzatekeen eskola bat antolatu eta Udalak ingurugiro eskola ere bultzatu beharko lirateke. Gainera, Udala auzoa turismo ekologikoa jasotzeko presta daiteke: gune ekologiko izendatu dute eta ez da ezer egin hori promozionatzeko. Bestalde, ez dugu ahaztu behar kultur eskaintzek zeresana dutela. Ikerketan ikusi denez, inguruko jende asko Gasteiza joaten da pelikulak ikustera. Beste eskaintza kulturalen eskaria jeitsi gabe, inguruko herrietako jendea hurbiltzeko multizine antzekoa egitea ondo egongo litzateke. Azken finean, jendea erakartzeko formulak aurkitzea eta ezagutzera ematea da helburua”.

“TURISMO INDUSTRIALA HURBILTZEN ZAIGU HOTELERA”

Herrian hotelik ez zegoelako kooperatibetara etortzen ziren bisitariak lo egitera kanpora jotzen zutela ikusirik, Mertxe Arana eta Jose Antonio Zarrakoak orain dela hiru urte hotela zabaldu zuten Arrasaten. Ausartak izan ziren, egindako inbertsioa handia izan baitzen. Hala ere, hartutako erabakiaz ez dira damutzen.

- Zein bisitari hurbiltzen da zuen hotelera?

Herriko enpresak bisitatzea etortzen diren bisitariak batez ere, turismo industrial hurbiltzen zaigu. Azkenaldian, berriz, Amaia antzokian ekintza garrantzitsuak egiten direnez, turismo kulturala jasotzen hasi gara.

- Hoteleko gelak erraz betetzen dira?

Astelehenetik ostegunera beteta egoten da, baina gainontzeko egunetan erdi hutsik. Baina lehen esan bezala, Amaia antzokiaren eraginez poliki-poliki astebukeratan bisitariak jasotzen hasi gara.

- Arrasaten badago beste hotel batentzat tokirik?

Dirua edukita ere, gu ez ginatke beste hotel bat zabaltzera ausartuko. Orain dugun hotelak bost gela gehiago balitu nahikoa izango litzateke. Gainera aurrerantzean zer gertatuko den ez dakigu, bide azkar bat egiten badute, Gasteiza segituan helduko gara eta hori kalterako izan daiteke.

- Hotelera hurbiltzen direnek bisitatzeko dute herria?

Normalean ez, lanera etortzen baitira. Baina bisitatzeko dutenek, polita eta itxura onekoa dela esaten dute. Komertzio onak daudela esaten dute.

NONDIK JO

Mankomunitaterako egin den txosten horretan, proposamenak baino ez dira ageri, ez da proiekturik egin. Hala ere, orain arte egindakoari jarraipena emateko asmoa dago eta dagoeneko, proiektua egiten hasteko dirulaguntza eskatu da. “Bailara mailan

turismorako zentru bat eratztea da asmoa. Inguruko herriek zer eskain dezaketen aztertu eta ibilbide kulturalak antolatzen eta promozionatzen has gaitezke. Gutxigora-behera, Oñatin egin denaren antzekoa. Gero maila handiagoan azpiegiturak sortzen hasi. Alojamen duaren eska-

siari aurre egiteko aterperen bat eta agian Gatzagan hotela zabaldu. Guzti hori aipatzean ez naiz proiektu handietan pentsatzen ari eta aipatutako guztia ere ez da derrigorrez behar, poliki-poliki abiatu beharra dago. Daukagunaz baliatuz, eskaintza bat sortzen jakin behar dugu.”



Astean zehar, herriko enpresak ezagutzera etortzen direnak hurbiltzen dira “Arrasate hotelera”.

Hilario Aransaez, frontoirik frontoi

Hilario Aransaez izatez Errioxarra den arren, Hornilla herrikoa, urte asko daramatza Arrasaten bizi izaten. Asegarce pilota enpresako artekaria da, beraz, apostuaren mundua oso gertutik ezagutzen du.

- Artekari izateko afizioa nondik datorkizu?


- Pilota munduan sartuta betidanik egon izan naiz, gazetetan pilotaria izan nintzen. Baina, bizkar hezurrian izan nuen arazo batengatik hasi nintzen artekari lanetan. Ni butano banatzaile ibili nintzen 17 urtetan zehar; gero arazo larri bat izan nuen bizkar hezurrian eta ebakuntza egin zidaten; hain txarto geratu nintzen, lan hori utzi beharra izan nuen, inutilitatea eman zidaten eta bizi izateko diru gutxi geratu zitzaizdanez, artekari sartu nintzen.

- Gaur egun lan horretatik bizi izan daiteke?

- Gaur egun ez, jokuak asko egin du behera, desplazamenduak oso luzeak dira eta gastu asko ditugu, beraz, zaila da gaur egun artekari lanaz bakarrik bizimodua ateratzea.

- Artekari batek ezagarrari bereziak behar ditu?

- Ez, artekari izatea samurra da: biderketak, zatiketak, kenketak eta gehiketak egiten jakin ezkerro, nahikoa da. Honez gain, ezdarri ona behar



da. Ze, esaterako, Logroñoeko eta Iruñeako ferietan 7 edo 8 egunetan zehar partiduak daukenez, ezdarriak zer ikusi haundia dauka.

- Zeintzuk dira apostuak egiteko frontoirik onenak?

- Eskuzko frontoiak kontutuan hartuta, onenak Bergara, Eibar eta Tolosakoak dira; azken hau orain itxita dago. Gipuzkoa da gehien jokatzeko den lekua. Gero Errioxan, pilota lekuak ia beti gainezka egon arren, apostuak egiteko orduan portzentaia asko jaitzen da, papeletak txikiagoak dira eta.

- Pilotalekura doan edonork du apostua egiteko aukera?

- Guztiek dute aukera, baina pertsona ezagutzen ez baduzu, ez zara ausartzen diru kopuru haundia ematen. Dena dela, ezin diozu ezetzik esan, beraz, ezagunari 20 papeleta ematen badizkiozu, ezezagunari 2 bakarrik. Ez duzu arriskatzen, bada ez bada.

- Batazbeste zenbat diru jokatzeko da?

- Hori kalkula ezina da, izan ere, ez da gauza bera neurketa 22-4 bukatu edo 22-21. Esanak esan, oso zaila da diru kopurua zehaztea, parti-

duaren bilakaeraren arabera izaten dira apostuak.

- Ordaindu gabe ihes egiten duenik ba dago?

- Horrelako asko ez dago, pilota munduan guztiok ezagutzen dugu elkar, baina herri herri gabiltzanez, arretaz ibili behar izaten dugu horrelako jendeaz topo ez egiteko.

- Eta ezagunak izan arren, dirua zorretan uzten dutenak?

- Bai, egon badaude, baina ez dugu arazo gehiegi izaten, guztiok elkar ezagutzen dugulako.

- Orain Asegarcen enpresan zabilta, gustora?

- Egia esateko oso gustora, ez dut sekula arazorik izan, pozik egoteko moduan nago.

- Zelan ikusten duzu pilotaren etorkizuna?

- Nahiko txarto, gauzak txarto egiten ari direlako. Batetik, partiduak pilotazaleei begira jarri ordez, telebistari begira jartzen dituzte enpresak. Eta pilotazaleari ezin zaio partidu bat goizeko 12etan edo 6.30etan jarri, jendea ez da joaten. Eta jakina, jendea ez badao, ez du dirurik jokatzeko. Bestetik jartzen ari diren sarrerak oso garestiak dira.

- Aurtengo txapelduna?

- Arretxe izatea gustatuko litzaidake eta bera izango dela uste dut gainera.

FOTO
imagen
ARGAZKI

Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

- HIZKUNTZA ARAZOAK**
- HIZKETA ARAZOAK**
- AHOTS ARAZOAK**
- IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK**

Zorgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE


Asteburua kirolez blai

PENALTIAK

● **Bigarren mailako txirrundulari kadeteek, Aretxabaletan izango dute zita maiatzaren 29an. Arratsaldeko 4etan hasiko da lasterketa eta 120 bat txirrundulari izango ditugu irteeran. Ibilbidea Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasate artean dago kokaturik. Eta datu moduan aipagarri, txirrundulariek Kanpazarrera Epeletik igoko dutela eta ez Zarugaldetik.**

● **Lehen bueltan gure pilotariak (1-2) galdu egin zuten Segurakoan kontra. Infantilek, Rubia eta Etxeberriak 18-3 irabazi bazuten ere, jubenilek (20-22) eta Nagusiek (17-22) galdu egin zituzten partidua. Dena dela, oraindik ez da itxaropena galdu, neurketa hauek lehen bueltakoak baitziren, bigarren buelta Seguran jokatu da ostiralean gaueko 10etatik aurrera. Esan beharra dago Segurako pilotariak oso onak diren arren, Arrasatekoek oraindik badituztela aukerak. Zorte on!**

Deba garaiko eskola arteko 5. olinpiadak burutuko dira maiatzaren 28an, Bergaran. Olinpiada Deba Garaiko Udal Kirol zerbitzuak antolatu du, Gipuzkoako Foru Aldundia- ren laguntzat. Bertan parte hartzeko hainbat gauza izan behar ditugu kontutan: Deba Garaiko edozein herritako ikastetxeetan dabilzan O.H.O.ko 5. eta 6. mailetako neska-mutilek har dezakete parte. Talde bakoitza 4 lagunek osatuko dute eta talde honek egun horretarako proposatzen diren kirol multzoetatik pasa beharko du rotatiboki, baina ez da egongo kirol multzo bat errepikatzeko aukerarik. Talde bakoitza, bere kapitainaren izenez ezagutuko da. Esandakoaz gain, kirola egiteko erropa aproposak eramatea izan behar dute kontutan parte-hartzaileek. Igeriketa multzoko frogak betetzeko bainujantzia, txankletak



Deba Garaiko eskola arteko 5. olinpiada, larunbatean.

eta txanoa eramatea derrigorrezkoa da. Gainera, Bergarara joan-etorria egiteko autobusak ikastetxe bakoitzak antolatuko ditu. Jai honek arratsaldeko 3etatik 7.30ak inguru arte iraungo du.

Era berean 28an, AEDko Biheko taldeak antolatu duen futbito txapelketaren barruan, nesken futbito izango da nagusi Iturripen. Guztira, 14 taldek eman dute izena, dagoneko, eta arratsaldeko 2etatik 9ra arte iraungo du txapelke-

tak. Esanak esan, futbitoa ikusi eta jai giroa gozatzeko aukera paregabea izango dugu Iturripen.

Eta bukatzeko larunbatean bertan, 2. bizikleta ibilaldia izango dugu, Arrasate kirol proiektuak antolatuta. Bizikleta txango honen ibilbidea; Arrasate-Aramaio-Arrasate izango da. Irteera goizeko 10etarako dago iragarrita herriko plaza nagusitik eta helmuga Iturripen izango da. Asteburu kirolzalea, beraz.


EMAITZAK

Futbola

2. Regionala (kopa): Mondra 3- Santo Tomas 3.
Mondra eliminatuta.
Emakumeak(kopa): Mondra 1- Gure Txokoa 2
Jub. Ohorezko liga: Mondra 2 - Lazkao 0
Hurrengoak:
Emakumeak (kopa):Gure Txokoa -Mondra.
Zapatuan,7etan Beran.
Jub. Ohorezko Liga: azken neurketa.

Pilota

Herri artekoa, finalerdiak Arrasate 1 - Segura 2
Infantilak (18-3), Jubenilak(20-22), Nagusiak(17-22).
Hurrengoak:
Herri artekoa, finalerdiak Segura - Arrasate.
Eguakotxa, 10etatik aurrera, Seguran.



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

**Altzariak
Diseinua
Apainketa**
**M
ARENAZA**
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Eguzkia nola hartu

Uda badator eta eguzkia hartzeko gogoa piztu zaigu gehienoi. Hori dela eta, aholku sorta bat eman nahi genuke, estetikari buruz noizean behin argitaratuko dugun sail honen barruan. Aholku orokorrrak dira, gero bakoitzak bere azal motaren eta sentsibilitatearen arabera neurriak hartu beharko dituela kontutan izan:

- Garrantzitsua da azala ondo garbitzea: uraz, bainuak hartuz, tratamendu bidez, sauna bidez, esfoliazioak eginez, zelula hil guztiak botatzeko, gaineko azala garbitzeko.
- Azala prestatzeko garrantzitsua eta lagungarria da solariumera joatea.
- Tratamenduren baten edo botikak hartzen egon ezkeror gehiago zaindu behar



da, eta janaria zaintzea ere inportantea da.

- Hidratazio aldetik tratamenduren bat egitea ere inportantea izaten da, zenbat eta nagusiagoa izan eta garrantzitsuago. Uraren bidez, barrutik kanpora, eta kanpotik barrura ere bai. Hidratazioa

aurretik eta ondoren egin behar da.

- Ezberdina da eguzkia mendian edo hondartzan hartzea (mendian gehiago ematen du, alturarengatik), egunaren orduaren arabera ere bai (eguerdian gehiago jotzen du eguzkiak).


• Babesa oso da garrantzitsua, eta krema protekto-reak erabili behar dira. Uretatik irteerakoan berriz egin behar da. Faktorea aukeratzeko orduan, norberaren azal motari begiratu behar zaio.

• Gorputzeko atal bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituela kontutan izan (begiak eta bularrak oso delikatuak dira).

• Apurka apurka hartu eguzkia. Aurretik hartu duenak arazo gutxiago izango du. Azala berez zuria duelako gorritu baino egiten ez zaionari, hondatu ere asko egingo zaio, kalitatea galduz.

• Eguzkia hartu ondoren, begiratu nola dugun azala, erre egin garen, gutxi hartu dugun, eta beti hidratazioa eman, ondo garbitu eta gero.

LORAMENDI KIROLAK



AEROBIC-A




TENISA



BASKET-A



AISIALDIA



FUTBOLA

KIROL BAKOITZERAKO OINETAKO BEREZIAK

REEBOK, NIKE, CONVERSE, SAUCONY, AVIA, ADIDAS, ASICS...



FOOTING-A

Zatoz sure aukera ezagutzera!

Z E R N A H I A G O ?

Ane Miren Guemes

Irakaslea



- Fededuna zara? Batzutan bakarrik.
- Beste lanbide bat izatekotan? Arkeologoa.
- Ba duzu konfiantzarik politikan? Ez, bat ere ez.
- Udan nora joango zara? Marruekosera.
- Ba duzu makilatzeko ohiturarik? Batzutan makilatzen naiz.
- Zenbat ordu egiten duzu lo? Gutxienez zortzi ordu behar izaten ditut.
- Zapatu gauetan zein ordutan joaten zara etxera? Uf! Hiruak baino lehenago sekula ere ez.
- Zein adinekin sentitu zara ondoen? 24 urterekin.
- Zergatik? Ikasketak bukatu nituelako eta bizitza independenteagoa izaten hasi nintzelako.
- Nori gustatuko litzaizuke elkarrizketa bat egitea? Ez dut idolorik, nahigo dut pertsona nagusi eta aditu batekin hitz egitea ospetsua den norbaitekin hitz egitea baino.
- Ezkondu ala elkarrekin bizi? Elkarrekin bizi.
- Oraindik bete gabeko amets bat? Ez dut ametsik, baina denetatik zertxobait gehiago jakitea gustatuko litzaidake.
- Bete zaizun amets bat? Guztiak.
- Zein estilotan apainduko zenuke zure etxea? Aintzinako estiloan.
- Nobio asko izan duzu? Ez.
- Lo egiteko almodarekin ala barik? Almodarekin hobeto.
- Zer ez zenuke sekula jantziko? Kolore "fosforitoko" edozein jantzi.
- Seme-alabarik izan nahi duzu? Bai.
- Egunean zenbat aldiz garbitzen dituzu hortzak? Hiru bider.
- Ba duzu depilatzeko ohiturarik? Bai, hilabetean behin gutxi gora behera.
- Infusioak gustatzen zaizkizu? Ez, nazka ematen didate.
- Gomendatu liburu bat? Atxagaren "Gizona bere bakardadean".
- Katu bat izanez gero, zein izen jarriko zenioke? Badaukat katua eta "Piturri" deitzen da.

BERTSOAK

Aspaldian gabiltza
krokisa prestatzen
lehenengo hasi ginen
taldeak banatzen.

Batzuk marraztu eta
besteak margotzen
oso pozik gabiltza
jai hau antolatzen.

Maiatzak hamabi da
Gazteluondo eguna
ta benetan hau bai da
poza guk duguna.


Lehenengo joan ginen
ume txikiengana
umeak gu ikustean
datoz bai gugana.

Arratsaldea heldu da
denok gaude urduri
ikusiko ditugu
antzerki ugari.

Gero txokolatada
emango deneri
azkenean denok goaz
etxera kantari.

**ANE ZABALA, ALAZNE RUIZ DE
MUNAIN ETA NAIARA VAZQUEZ**

Arrasate - Irlanda **Parlance** -rekin



**Galwayruntz goaz
ekainaren 28an.
11 eta 19 urte bitartean bazaude
eta gurekin etorri nahi baduzu,
deitu 77 06 83ra.
Helduentzat ere
aparteko ikastaroak ditugu.**

Demetrio Iriarte Mugika

Txistuari dedikatutako bizitza oso bat

Demetrio Iriartek joan den toki guztietara txistuaren soinua eramandu. Arriaga antzokiko Txisturako Obren Txapelketan 3 sari oso garrantzitsu irabazi zituen eta bere izenak oihartzun handia du Euskal Herri osoan. Atxabaltan bizi da eta igandean omenaldia egingo diote Oñatin, bere jaioterrian.



— Zenbat urterekin hartu zenuen txistua lehen aldiz?

— Zortzi urterekin.

— Nondik sortu zitzaizun txistuarekiko grina?

— Arbasoengandik datorrit txistularitzarekiko zaletasuna. Galo, aitona, Oñatira joan zen txistulari. Bertan geratu eta hiru seme-alaba izan zituen: Demetrio, nire aita, Higinio eta Isidra. Txistu zaletasuna gizonezkoek jarraitu zuten. Aitona hil zenean, Oñatiko txistulari plaza nire aitak hartu zuen. Aitak bi seme izan zituen: Higinio eta ni, eta orduan hartu genuen bi anaiok zaletasuna.

— Dena dela, musika ikasketak egin behar izango zenituen, ezta?

— Bai, jakina. Oso gaztea nintzela, bederatzi urterekin edo, aita izan nuen lehen maixua eta gero Don Pedro Martinez. Musika eta armonia ikasketak jarraitu nituen

beranduago, lehenengo Oñatin eta gero Donostian, han nengoen eta jostun ikasketak egiten. Donostian, Aita Urkia, Aita Madina, Isidro Ansorena eta Urteaga izan nituen maixu; Urteagak kontrapuntua erakutsi zidan, eta txistulari lanetan ibili nintzen Donostiako Euskal Abesbatzen Orfeoian: Frantziara eta horrelako lekuetara joaten ginen.

— Pieza pila bat sortu ere egin dituzu. Noiztik eta zenbat?

— Donostian Euskal Abesbatzen Orfeoian nengola, 1935 urtean gutxi gora behera, konposatu nuen nire lehen pieza: "Gora Kirolak". Gero gerra etorri zen eta Bizkaira joan nintzen gudari,

Etxagibel eta guzti horiekin. Santoñan jausi eta gartzelera joan ginen beste batzuk eta ni, hala ere, txistua beti nuen alboan. Lau urte pasatu ziren eta Oñatira bueltatu ginen. Aretxabaletan urte horretan txistulari eta arbitriosko plaza konkurtsora atera zen baina ez ninduten onartu Francoren erregimenarekiko "desafecto" a zela eta. Gero, sastreria jarri nuen Atxabaltan eta azkenean, txistulari plazan ere onartu egin ninduten. Aretxabaletako Musika Banda sortu nuen 1952 aldera eta solfeoko klaseak ematen ere ibili nintzen zortzi urtetan. Konposizio kopuruari dagokionez, 70 bat pieza izango ditut konposatuta.

.....

"8 urterekin hartu nuen lehen aldiz txistua, eta 75rekin azken aldiz"

— Oso ospetsua omen zara. Zer diozu?

— Bai zera! Merezki ez dutenei eman ohi zaie ospea!

— Nolatan egin zenituen joskin ikasketak?

— Aita horretan ibilitakoa zen eta nik kortea egin nuen Bilbon eta Bartzelonan. Ohialak moztu eta kanpora bidaltzen nituen jostera.

— Zein estilotako erropa moztzen zenuen?

— Gizon nahiz emakumeena: "gona-fraka" direlako horiek moztu izan nituen nik.

— Eta mini-gonarik ez?

— Ez, horiek ez. Garai hartan gonak luzeagoak ziren.

— Omenaldi bat baino gehiago egin dizute. Zer sentitzen duzu honen aurrean?


— Txistulari lanetan 50 urte bete nituenean, omenaldia egin zidaten eta duela urte pare bat Aretxabaletako Musika Banda berreskuratu zenean, Aretxabaletako Herriaren Urrezko Domina eman zidaten. Igande honetakoa, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak egingo dit eta jakina, oso pozik nago.

— Noiz hartu zenuen txistua azkenengo aldiz?

— Duela 3 urte: tronbo-sia eman zidan eta ezkerreko eskua mugitu ezinik geratu zitzaidan.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Liburu azoka zabalik

Euskadiko Liburu Azoken Batzordeak antolatuta eta Arrasateko Udalaren laguntzaz, Arrasateko Liburu Azoka zabaldu zen joan den asteartean ohizko lekuan, Garibai etorbidean.

Liburu etxoletan hainbat argitaletxe, banatzaile eta liburudendak erakusten dituzte liburuak: Gakoa-Talasa eta Elkar argitaletxeak, Donostiako Ramos, Urretxindorra, Zabaltzen eta Manterola liburudendak eta Donostiako Zabaltzen eta Bilboko Plane-

ta Credito eta Lector Libro banatzaileak.

Duela bi urtetik ez zela liburu azoka antolatzen eta aurtengo honetan, aurreko urteetan baino etxola gutxiago daudela aipatu behar da.

“EZ DUTE ZENTZURIK”

Kalera irten dugu liburu azokak liburu-dendetan duen eragina ezagutu asmoz. “Hire” liburudendak dioenez, era honetako azokek ez dute zentzurik, “azoka hauek liburu espezializatuagoak sal-



Liburu azoka iganderarte zabalik tzen dituztenean izaten dute zentzua baina bertan saltzen diren liburuak edozein liburu-dendetan aurki ditezke prezio berean”. Gorabehera, Hire eta Naroki dendek iritzi berbera dute ARRASATE PRESSeri adierazi diotenez, ez dute salmen-

ten jeitsiera nabarmenik nabaritzen, nahiz eta kompetentzia egiten dietela onartu.

Liburu azoka iganderarte egongo da zabalik. Ordutegia: Goizeko 12etatik 14.30etara eta arratsaldeko 17.30etatik 22.00etara.

Ortonovo-Arrasate: 10 urtetako harremana

Duela 10 urte hasi ziren Ortonovo herri italiarraren eta Arrasateren arteko harremanak. Arrasateko hainbat taldek egin dute bisita Otonovora 10 urte hauetan eta ortonovotarrak ere izan dira hemen. Ostiralean Bergarara erakusketa batetara etorriko direnez, aukera aporbetxatu eta ongi etorri ofiziala egingo zaie 10 urtetako harreman honen adierazgarri. Ongi etorri ekitaldia, arratsaldeko 7etan hasiko da. Ohorezko Aurreksua dantzatuko zaie eta oroigarri bat emango die Arrasateko udalak. Ondoren, Monterronen, burututako harreman guztiak batuko dituen bideoa proiektatuko da eta gauean, S.U.D.C. elkartearen afaria izango dute ortonovotar eta arrasatearrek.



Gino Corsaninik egin zuen Santa Barbarako brontzezko dragoia.

ARRASATE-ORTONOVO

Bi herrien arteko harremanak, 1984ko ekainean hasi ziren. Begoña Uriarte arrasatearra Carraran ari zen Iturbide Egoitzarako egiten ari zen eskultura amaitzen. Muntaiian, Luigi eta Celestino Corsanini ortonovotarrak la-

gundu zioten. Luigik, garai hartan Orione C.F taldearen lehendakaria, Mondragon C.F taldea gonbidatu zuen udako futbol torneo batetan Ortonovon parte hartzeko. Urte bereko azaroan, Iturbide egoitzako obrak amaitu zirela eta, Begoña Uriartek bere eskul-

turen erakusketa iriki zuela aprobetxatuz, Ortonovoko talde batek bisita itzuli zion Arrasateri eta San Juan jailetan, 60 bat ortonovotarrak Zaldibar pilotalekuan herribazkaria prestatu eta futbol torneoa jokatu zuten.


Hortik aurrera, bi herrien arteko harremanak ugartuz joan dira gaur arte, bai Arrasate Musikalekin, bai Lore Gazteak taldearekin eta bai S.U.D.C. elkartearekin ere, beste batzuen artean. 1985, 86 eta 87an, Euskal eskultore eta Carraratik etorritako zenbait nazionalitate ezberdinetako eskultoreen partaidetzaz, eskultura topaketak ospatu izan ziren Arrasaten eta 1987an, Gino Corsaninik egindako brontzezko dragoia jarri zen Santa Barbaran.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 08 15

ARTOLA KOMERTZIALA
Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

ARTEA
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78



skola Politeknikoak Bruselasko erakusketa Unibertsala ikustera egin zuen ibilaldia-rekin jarraitzen dugu. Eskolako ikasle ohi, irakasle eta laguntzailez osatutako talde handi horretan, musikak eta dantzak ere hartu zuen lekua, eta joaten ziren leku guztietan ikuskizuna eskaintzen zuten, kanpinean argazkiko aurrekua bezala. Bi soinu, kitarra eta txistua eraman zituzten, Karmelo Heriz, Ramon Heriz eta Legorburu antzuolarra musiko. Dozena erdi kantu prestatuta ere eman zituen abesbatzak. Coloniako

hirian kazetari eta argazkilariek hartu zuten euren ekitaldia.

On Jose Mariak aurrez egindako kontaktu batzuri esker, Europako hainbat lantegi ere bisitatu ahal izan zuten, Colonian Industria eta Merkataritza Ganbarako zuzendariak hartu zituen. Traktoreen "Deutz" lantegia, Eindhoven-eko Philipsen lan-

tegia besteak beste. Azken horrek 40.000 langile inguru zituen garai hartan.

Bruselasko erakusketarekin harrিতa etorri ziren, baina Espainiako pabilioiak dezepzioa ekarri zien, gogoratzten dutenez: "Madrid eta Bilboko futbol taldeen argazki bana, toreroak larranjak, taberna (txikitoak bost pezeta balio zituen), Dalíren kuadro

eder bat eta besterik ez". Hori bai, "limpiabotas" guztiak espainiarrak ei ziren; lanbide hori guztiz ezezaguna zen nonbait atzerrian.

Eta denen ametsetako Paris hura ere ezagutu ondoren, diru apurrok Europan zehar utzita, eta kontatzeko kontu eta opariren batzurekin etxeratu ziren, autobus zaharretan tirriki-tarraka.

UGARAN jatetxea


Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



**CF
CARFRA**

Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

LAURA



VIRGINIA GOROSABEL

**Sport estiloa gustoko
dutenetatik hasi
eta klasikoeneraino**

— LAURAKO diseinua orori zuzenduak daude?

— Eskeintza zabala da. Hemen moda arloan emakumearen beharrak zentzu zabalenean betetzen saiatzen gara. Sport estiloa gustoko dutenetatik hasi eta klasikoeneraino.

**LAURAn, haurdun egoteak
ez zaitu mugatuko**

— Zein da zuen espezialitatea?

— Esan bezala, emakume gaztea jastzen dugu, baina bereziki hardunaldirako modeluak dauzkagu. Bizitzako etapa ezberdinetan emakumearen eskaerari erantzutea da gure helburua.

Taila bereziak

— Haurdun dauden emakumeentzat aukera zabala izaten da?


— Bai horixe. Puntuzko edo jasteko praktetatik hasi eta petoak nahiz bermudak eta gona, soineko eta blusak; baita bainujantziak ere. Gainera taila bereziak ere badauzkagu jantzi aproposak aurkitzeko arazoak dituztenentzat.

**ERDIKO KALEA, 30
T 79 05 80**

• ESAERA ZAHARRA •


*Maiatza hotz
urtea zorrotz*

• JEROGLIFIKOA •



**Eguraldi ona dagoenean
hondartzara joaten zara?**

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. ATBko lehiaketa. 8. Sodioa. 9. (Ald.) Pentsamendu. 10. Burdina erakartzen du. 12. (Ald.) Minus. 13. 42 Km. inguruko lasterketa. 15. Almeriako ibilgailuetan. 16. Barneratu. 18. Froga berezia. 20. Ezker Sindikal Koordinakundea. 21. Arku. 22. Bike.

Bertikalak 1. Adoretu. 2. Zoritxarrez. 3. Saskibaloian saski antzekoa. 4. Omen. 5. Zerbaite-tarako denbora. 6. Errespetu handikoa. 7. Neuk. 11. Ez eme. 14. Eta. 17. Ukitu aditzaren infiniti-boa. 19. ASTOaren kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Ezin zaitu inork jasan. Joan zaitetz perretxiko bila!

Taurus Jadanik prakak ipurdian estu-estu geratzen zaizkizu. Kirol apur bat egitea ondo etorriko litzaizuke.

Gemini Zure mutil-lagunak ihes egiten dizu. Zintzarri bat jarriozu.

Cancer Asteburu hau benetan itzela izango da zuretzat.

Leo Oraindik ohartu ez bazara, "pasota" izateak batzutan ondorio kaltegarriak ekartzen ditu.

Virgo Esan behar dizut larrosarik ederrenak ere arantzak dituela.

Libra Horrenbeste oilasko janez, hegoak irten behar zaizkizu.

Scorpio Kontuz beroarekin, desidratatzeak ez baitu onurarik ekartzen.

Sagitaris Gezur asko esateak sudurra handi diezazuke.

Capricorn Gorputz liraina mantendu nahiak gosea pasarazten dizu.

Aquarius Kangrejoak bezala, aurreraka beharrean atzeraka zabilta.

Piscis Nahiz eta zuk ez uste, lagunek asko estimatzen zaituzte.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ROSITA BERGARETXEREN GOMENDIOA •



Rositari kezka sortzen dio inori gomendioa eman behar izateak, "gaur egun zaila da, bakoitzari gauza bat gustatzen zaio, eta berari ondo datorkiona egitea gomendatuko nuke nik, hasteko". Hala ere, bera ez da geldik egotea, aktibitatea behar du: "gure edadean etxean ez geratzea gomendatuko nuke nik behintzat. Norbere buruaren onerako Urkulutik buelta bat, edo norbere gustoko aktibitatearen bat egitera irten". Berari gauzak ikastea gustatzen zaio. "Orain masajea ikasten ari naiz eta panderoa ikastea edo euskaraz alfabetatzea ere gustatuko litzaidake, denbora gehiago banu. Gauza berriak ikasten aurkitzen naiz gustora".

• PROGRAMAZIOA •



30 Astelehena
 13.30etan Eguerdiko Berriak
 13.35etan "Kukaratxa Motel" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan Mondrasport
 22.00etan Pelikula erraldoia: "Harreman arriskutsuak"

31 Asteartea
 13.30etan Eguerdiko Berriak
 13.35etan Mondrasport (errep.)
 14.05etan "Harreman arriskutsuak" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan ATBketan
 22.00etan "Jeremiah Jonshon"

1 Asteazkena
 13.30etan Eguerdietako Berriak
 13.35etan ATBketan (errep.)
 14.05etan "Jeremiah Jonshon" (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan Pareak Jokuan Gonbidatuak: Garraisi Ixila eta Elkarr
 22.00etan Dokumentala: "Automobila; Argazkia"

• KOMIKIA •



Norku Nafarrate

2 Osteguna
 13.30etan Eguerdietako Berriak
 13.35etan Pareak Jokuan (errep.)
 14.05etan Dokumentala (errep.)
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan Bakarka. Gonbidatua: Leonardo Esnaola misiolaria
 22.00etan Euskal filmea: "Hamaseigarrenean aidanez"

3 Ostirala
 13.30etan Eguerdietako Berriak
 13.35etan Bakarka (errep.)
 14.05etan "Hamaseigarrenean aidanez" (errep.)
 19.50etan Kukaratxa Motel
 20.30 eta 21.00etan Berriak
 21.30etan Astebete.
 22.00etan Haurren filmea: "Arturo Erregea"

• SOLUZIOAK •

VE ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

BIONA

 Zurgin Kantoi, 2
 Tfnoa: 79 20 04
 ARRASATE

JEROLIFIKOA
 Uka, 19, St.
 Adertsu, 7, NIK, 11, Ar, 14, Ta, 17,
 Iez, 3, Kanasta, 4, El, 5, Tenore, 6,
Bertakal 1, Animatu, 2, Tama-
 BSK, 21, Uztai, 22, U!
 ratoi, 15, Al, 16, Sarru, 18, Test, 20,
 9, Ideia, 10, Iman, 12, Ken, 13, Ma-
Horizontalek 1, ATBketan, 8, Na-
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Apartamendua alokatzen da Torrevejan.** Ondartzatik hurbil. Prezio interesgarria. Tfnoa: 78 14 72.
- **134 m² tako etxebizitza salgai.** 7 logela, eguzkitzua, erabat hornitua, 2 komun, berogailua eta ur beroa. Atundu berria. Bista zoragarria. Tfnoa: 77 10 27.
- **Merkatala lokala alokagai** (traspasurik gabe). 35m². Tfnoa: 79 84 37. Goizeko 9etatik 12etara.
- **Garajea alokatzen da.** Roneo aldean. Tfnoa: 79 36 09.
- **Peñiscolan 6 pertsonentzako bungalow** alokatzen da ekaina, uztaila eta irailean. Hondartzan bertan dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.
- **Apartamendua alokatzen da** Gasteizko erdialdean. Egongela, 2 logela, sukaldea, bainua, berogailua, kalefakzio zentrala, igogailua. Tfnoa: 79 47 95. Gaeuz deitu.
- **Donostian uda garaian** 2 etxebizitza alokagai. - Fermin Calbeton kalean: 2 logela eta 4 ohe. - Easo kalean: 2 logela eta 4 ohe. Tfnoak: 42 32 67 edo 42 45 02. Nati. (Bazkalorduan).
- **Bilbon gela bat libre** baduzu, gustora alokatuko nuke. Dei egin 79 14 01 tfnora. Maite. (Gaeuz).
- **2 ohedun logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokatzen da** San Andres auzoan. Tfnoa: 79 51 88.
- **Etxebizitza alokatzen da** Peñiscolan udako hila-beteetan. Tfnoa: 79 57 31. Juan Antonio. 6.30etatik aurrera.

• **4 ikasle etxebizitza** alokatu nahi genuke. Tfnoa: 83 34 09. Asteburutan deitu.

• **Andra euskalduna** prest pertsona nagusiak zainzteko. Tfnoa: 79 55 13.

Lana

• **Ingelesezko klaseak** ematen dira. Irakasle kanadiarra. Azterketa prestaketa. Merkea. Tfnoa: 77 04 58.

• **Uztailan lan egiteko** 2 neska prest. Tfnoa: 79 44 86.

• **Ingelesezko klaseak ematen dira.** Irakasle kanadiarra. Azterketa prestaketa. Merkea. Tfnoa: 77 04 58.

• **Neska bat etxeko lanak** edo bulegoak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 49 05. Edurne.

• **Enpresa lizentziatuak** administrari gisa lan egingo luke kontabilitate-matematika edo finantza-matematiketako klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.

• **Emakume euskalduna** eskaintzen da "interina" gisa ume edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.

• **Neska** eskaintzen da etxebizitzak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 27. Nati.

• **OHOko klase partikularrak ematen ditut** kurtso guztian zehar eta uztailan goizez eta arratsaldean. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.

• **2. REMeko klase partikularrak** emateko prest dagoen pertsona bat behar dugu. Deitu 79 06 50 tfnora. Agustin.

• **Titulu eta esperientziadun pelukera** bat eskaintzen da lan egiteko. Orduka edo egun osorako. Tfnoa: 79 55 13.

Salerosketak

• **Argazki kamara salgai.** Automatikoa, 2 objetiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuek dei egin. 79 49 05. Edurne. (60.000 pta.)

• **MINI-CONVER karabana salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 88 83.

• **Txakurrak eramateko** gurdia salgai. Tfnoa: 79 11 36. Iñigo. 8etatik 10etara deitu.

• **FIESTA 1.6 Diesel salgai.** Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.

• **Karro-denda bat hartuko** genuke abuzturako. Ondo eta libre badago eta alokatu nahi baduzu, dei egin 77 05 72 tfnora 8etatik aurrera. Ondo zainduko dugu.

• **FORD ESCORTa salgai.** Prezio interesgarria. Matrikula SS-U. Tfnoa: 79 63 16. Luis.

Denetarik

• **Musakolako jaietan,** domekan, arratsaldeko 6.30etatik 9etara urrezko pultsera galdu nuen. Pultseran, Elene izena eta data bat ageri dira idatzita. Eskertuko da. Tfnoa: 79 57 41. (Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu).

• **Urrezko pultsera galdu** nuen domekan, Eskola Politeknikoa eta Musakolako barraren artean. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.

• **Urrezko belarritakoa** galdu nuen asteartean Uribe auzoko inguruetan. Tfnoa: 79 96 64. Jasone.

Aste Gazte

Abentura egonaldiak

• 18-29 urte bitartekoei zuzendutako oporraldi egitarau desberdinak, Diputazioak antolatutakoak: zaldi ibilaldiak, uretako ekintzak, trabesiak, kirol-abentura, e.a. Izena emateko epea: ekainak 1-25.

Arkeologia

• Aranzadik martxan jarrita dituen arkeologi indusketetan laguntzeko 18 urtetik gorako boluntarioak hartzen ditu. Alojamentu eta mantenua antolatzaileen kargu.

Ikastaroak

- Adierazpen eta sormenari buruzko udako 6. ikastaroak Bilbon, uztailak 11-15. Ikastaroak: inprobizazioa, munduko dantzak, haur antzerkia, afrokubarra yoruba dantza,...
- "Ingurugiroari eta Gazteriari buruzko V. Bileran". Coruñan, urriaren 29tik azaroaren 1era. 16-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Prezioa: 6.000 pta. Epea: maiatzak 30.
- "VII. Udako Eskola". 6. Musikoterapia mintegi europarra. Gaia: musika, artea eta prozesua. Uztailaren 11tik

15era. Izenematea: uztailak 9.

Lehiaketak


- VII. Euskal Herriko Erakunde eta Enpresentzako bideo lehiaketa. Kirola, turismoa, enpresa, heziketa... Epea: ekainak 4.
- Enpresak sortzeko Gazteentzako IX. Ideia Lehiaketa. 18-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Sari garrantzitsuak. Epea: uztailak 20.
- "V. Ipuin Lehiaketa. Portugaleteko Hiria." Euskaraz nahiz erdaraz aurkez daitezke lanak. Sari ezberdinak. Epea: uztailak 29.

"Soldaduska beti izan da absurdu hutsa eta ahal zuenak ihes egin dio, hori egia zaharra da hemen."

JOXE AZURMENDI (EHUKO IRAKASLE ETA IDAZLEA). EGUNKARIAN



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



NIK NIREA NEREAN

Bainujantzietan espezialistak

ERDIKO KALE, 28 ☎ 79 13 43

HITZALDIA

GAIA: Ezkonbako bikoteen udal erregistroak,
Gasteizko Udalaren adibidea.

HIZLARIAK:

- **NEKANE SAN MIGUEL**
Tolosako Auzitegiko Epaile
- **PILI MENDIBIL**
Gipuzkoako Lesbianen
Kordinakundeko partaide

LEKUA:

AEDren lokalean
Pablo Uranga Kalea, 4

NOIZ:

Maiatzaren 31n (Asteartea)
Arratsaldeko 7etan.



iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

ZURE AMETSA HAU EZ BADA ERE...

Zatoz bila **iKER**-era!

ZURE AMETSAK ERREALITATE BIHURTZEN DITUGU

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

FAGOR 